

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko ekainak 12 · 1400 zenbakia

100 URTE BIRAKA

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com



YOGA ETA AYURVEDA ZENTROA



Txaltxa-Zelai 20, behea ezk  tif. 641 512 059



Isabel Blázquez da DEVI OM Zentroaren arduraduna. Txaltxa-Zelai kalean dago, 20 behea ezk. Berarekin harremanetan jartzeko, telefonoz edo Whatsappez (641 512 059) edo posta elektronikoz egin daiteke (info@deviom.eus). Isabelek Yoga Irakaslea izateko prestakuntza Sivananda Vedanta Nazioarteko Yoga Zentroan egin zuen, eta Indiara egindako hainbat bidaien bidez. Yogan zein Ayurveda terapien eta masajeen ezagutzan eta praktikan sakondu du.

DEVI OM-en hazkunde pertsonaleko tailerrak ere egiten dira eta, orain dela gutxi, Tibeteko kaikuen kontzertu bat eskaini da Nepalean hezitako pertsona baten eskutik. Une honetan, Isabel **Yoga eta Ayurvedako Erretiro bat antolatzen ari da uztailearen 3-4-Seko astebururako**, Burgosko probintzian, eta interesa duena berarekin jar daiteke harremanetan.

DEVI OM-en honako hau eskaintzen dugu: Yoga klaseak, masaje ayurvedikoak eta olio sendagarriekin egindako terapiak, nutrizioari, ongizateari eta biziorari buruzko kontsultak, meditazio-saioak, mantra-kantuak (kirtan) eta terapia naturalak, hala nola pendulu hebrearra.

Zentroaren helburua erabiltzaileen **osasun fisikoa, mentala eta espirituala sustatzea** da, pertsona bakoitzaren beharretara egokituta. **Yogak malgutasuna, indarra eta erlaxazioa** hobetzen laguntzen du, eta **terapia eta masaje ayurvedikoek maila fisiko eta emozionalean lan egiten dute**, ongizatearen **ikuspegi holistikoa** integratuz. Ayurveda Indiako Medikuntza Tradizionala da, 5.000 urte baino gehiago dituena. Ayurveda Medikuntzaren helburua da pertsonaren desoreka zein den ikustea, bere gorpuzkeraren edo dosha delakoaren (Vata, Pitta edo Kapha) bidez, kontuan hartuta 5 elementuz osatuta gaudela (eterra, airea, ura, sua eta lurra); beraz, kontua oreka lortzea da, eta **gizabanakoa osotasun gisa** aztertzen da, arreta sintometan bakarrik jarritik ez, baizik eta osasuneko desoreka horren **jatorrira iristen** saiatuz.



Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTuben ikusgai



www.etakitto.eu



Eibarko Txirrindulari Elkarteak 100 urte bete ditu eta Angel Lopez presidentearekin eta Joxe Aranberri ia bitizta osoan zehar elkartean egon den kidearekin elkartu gara elkarteaz beraz eta txirrindularitzaz berba egiteko.

eta kitto!
euskarako elkarteak

ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruene Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruene Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALA

Ego Ibarra

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



**Gaztetxea gure etxea**

Eibarko Gaztetxea okupatutako espazio komuna, autogestionatua eta asanblearioa da, irabazi-asmorik gabekoa. Herriko gazteek dinamizatuta, auzoari irekita dago, eta Txonta, Urkizu, Barrena eta Azitainerako argi- eta kolore-irla txiki bat izan da. Kontzertuak, hitzaldiak, memoria historikoa-ren inguruko ekitaldiak (Roberto Perez Jauregiren omenaldia, esaterako) eta aisialdi libre eta alternatiboa sustatu dituzte azken urte hauetan.

Garai latzak bizi ditugu: Palestinako genozidioa, Trumpen politika ankerrak eta faxismoaren gorakada. Horren aurrean, utopia, justizia soziala eta askatasuna aldarrikatzea beharrezkoa da, eta horretarako behar ditugu Gaztetxeak, baita Erre-kaleor edo Astika bezalako proiektu askeak ere.

Aipatzekoa da, halaber, Udalaren jarrera: inolako abisurik gabe, Ertzaintza bidali dute eraikina desalojatzera. Non dago, orduan, elkarriketaren bidea? Eta nork agintzen du herrian: herritarrek ala eraikuntzaren alorreko enpresa batek?

Amaitzeko, animoak eta indarra bidali nahi dizkiet asanbladako kideei. Aupa zuek!

Ametsak, indarra eta erresistentzia!

Oskar Cruz Elorriaga

Debeku selektiboen eta jarrerarik gabeko eztabaiden artean: EH Bilduren inkoherentzia eta EAJren taktizismoa

Eibarren sokamuturra debekatzeko mozioa aurkeztu du EH Bilduk. Baina, niretzat, nekez ulertzen den mozioa da; izan ere, alderdi berak, antzeko jarduerak antolatzen ditu gobernatzen dituen udalderrietan.

Eibarren animaliekin egiten diren jai-jarduerak indarrean da-goen araudia betez eta animalien ongizatea errespetatuz egiten dira. EH Bilduk halako ekitaldiak debekatu nahi baditu, Eusko Legebiltzarrean bultzatu beharko luke neurria. Gainera, ez da koherentea udalderri batzuetan debekua eskatzea eta EH Bilduk gobernatzen dituen beste batzuetan sokamuturra edo antzeko ekitaldiak mantentzea, hala nola, Bergara, Mutriku, Azpeitia, Zestoa edo Pasaian.

EAJ-PNVren kasuan, euren jarrera sarritan “intxaur jasotzailearena” moduan deskribatzen da: kasu honetan, eztabaida irekia nahi dute, posizionamendu argirik hartu gabe, eta gero egoeraren arabera kokatzea. Alegia, debatea sustatu bai, baina alde zuzenetik ez kontra ez alde; eta emaitzak ikusita, orduan bai, posizioa zehaztu. Horrek irudi bat uzten digu: arrisku politikorik ez.

Eta bukatzeko, alderdi honek inguruan eztabaida irekia nahi duela esaten duenean, EH Bilduri eskatutako gauza bera eskatzen diot: koherentzia. Gobernatzen duen udalderrietan ez du “estabaida irekiaz” ezer jakin nahi: Elgoibar, Azkotia, Durango, Deba, Donostia (hemen zezen festa izeneko ekitaldia eta guzti daukate), Bilbo... Gainera, hiriburuetoako zezenen etorkizuna Eibarkoena baina askoz ankerragoa da: Galdeiozue bertako EAJ-PNVko zinegotzie; honek hausnarketa bat merezi du: hitzak eta ekintzak ez doaz beti norabide berean.

Nik ez ditut bereziki gustuko animaliak tartean dituzten jarduerak, eta nire bizitzan behin bakarrik egon naiz honelako ekitaldi batean aspaldi Eibarko zezen plazan. Hala ere, uste dut jendeari bere tradizioak eta jaiak bizitzen utzi behar zaizkiola, bakoitzak nahi duen moduan gozatzeko aukeraz, beti errespetu osoz eta koherentziaz.

Iñaki Azkue

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

POTXOLIN. → Alua, zentzu afektiboan. “Jantzizu gonía potxoliña bistan daukazu eta”.

POTXOLO. → Lurrean egindako zuloa. Jolasetan, kanikia sartzeko edo nekazaritzan haziak edo landarak sartzeko. Esaterakoan, azentua lehenengo silaban daroia: póttxolo.

“Plaza Barrixan, potxolo bi genduzen jokorako”.

Umeei, maittia, kutuna esateko. Potxolo mutillei eta potxola neskei. “Hamen dator gure umia, zer moduz, potxola?”



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 12
EGUNEZ Barandela (Ziriako Agirre, 4)
ZAPATUA 13
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
DOMEKA 14
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 15
EGUNEZ Elortza (Juan Gisasola, 18)
MARTITZENA 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
EGUAZTENA 17
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUENA 18
EGUNEZ Elortza (Juan Gisasola, 18)
BARIXAKUA 19
EGUNEZ Zulueta (San Agustin 5)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Andres Egidazu Gorostidi**. 95 urte. 2026-06-06.
- **Ramon Gutierrez Estebanez**. 85 urte. 2026-06-06.
- **Jesus Maria Arizona Mena "Lander"**. 88 urte. 2026-06-06.
- **Teresa Gutierrez Gutierrez**. 83 urte. 2026-06-07.
- **Manuel Rodriguez Miranda**. 74 urte. 2026-06-07.
- **Victorina Merino Barreda**. 86 urte. 2026-06-08.
- **Maria Begoña Mendizabal Larrañaga**. 2026-06-10.



Ebazpenaren ondorioz, hautaketa-prozesua baliogabetu egin da, eta Udalak lanpostu horiek berrikusi beharko ditu.

Epaileak Udaltzaingoko sei lanpostutan C1 maila eskatzea indargabetu du

Eibarko Udaltzaingoko sei lanpostu betetzeko deialdian ezarritako C1 euskara-mailaren eskakizuna baliogabetu du Gipuzkoako administrazioarekiko auzien epaitegi batek. Epaia arabera, ez dago behar bezala justifikatuta lanpostu guztietan hizkuntza-maila hori derrigorrez eskatzea, eta eskakizuna “neurrigabea” dela ondorioztatu du.

SILBIA HERNANDEZ

Ebazpena B2 euskara-maila zuten hiru udaltzainek aurkeztutako helegitearen ondorio da. Helegite horretan, lanpostuak betetzeko deialdia eta hortik eratorritako hautagaien zerrendak auzitan jarri zituzten, eta epaitegiak haien argudioak onartu ditu. Sententziak jasotzen duenez, aztertutako lanpostu gehienek jarduna batez ere barnekoa da, eta horrek ez du nahikoa justifikatzen C1 maila guztiei ezartzea.

Ebazpenak udaleko hizkuntza-eskakizunen egoerari buruzko

Epailearen arabera, hizkuntza-eskakizuna ez dago behar bezala oinarrituta, aztertu diren lanpostu gehienek jarduna barnekoa delako

datuak ere jasotzen ditu. Horien arabera, Eibarko Udalak 275 lanpostu ditu, eta horietatik 206tan dago euskararen ezagutza derrigorrez ezarrita; hau da, lanpostuen %74tan. Kopuru horrek gainditu egiten du derrigortasun-indizearen arabera ezarri beharko litzatekeen %63,1eko muga.

PSE-EE pozik agertu da epailearen ebazpenarekin

Horren harira, Eibarko PSE-EEK “txalotu” egin du Udaltzaingoko agente lehenen lanpostuetarako C1 hizkuntza-eskakizuna baliogabetu duen ebazpen judiziala.

Alderdiaren arabera, epaiak berresten du hizkuntza-baldintzak lanpostuen benetako eginkizunetara egokitu behar direla, eta neurritz kanpoko eskakizunek funtsezko lanpostuak betetzea zaildu dezaketela.

PSE-EEK gogorarazi du Udaleko Lanpostuen Zerrendaren azken berrikuspenean hizkuntza-profilak udalerraren errealitate soziolinguistikora egokitzeke proposamena egin zuela, baina EAJ-PNVk eta EH Bilduk ez zutela onartu. Epaia, gainera, derrigortasun-data gaindituta duten lanpostuen kopuru handia, eta hizkuntza-profilen plangintzan dagoen desoreka azpimarratzen dituela nabarmendu dute.

Ebazpenaren ondorioz, hautaketa-prozesua baliogabetu egin da, eta Udalak lanpostuak berrikusi beharko ditu, neurritz kanpokotzat jotako eskakizunak kentzeko. PSE-EEK defendatzen du euskararen normalizazioa eta herritarrek euskaraz artatuak izateko eskubidea bermatu behar direla, “baina baita enplegu publikora berdintasun-baldintzetan sartzeko eskubidea eta udal-zerbitzuen eraginkortasuna ere”.



San Juan jaietarako gaueko tren zerbitzu bereziak eskainiko dituzte

S.H. Euskotrenek gaueko tren zerbitzu berezia jarriko du martxan ekainaren 13an, 19an, 20an eta 23an, Eibarko jaietan aurreikusituen diren joan-etorriak errazteko. Ekainaren 13tik 14rako eta 20tik 21erako gauetan, larunbatetako gaueko zerbitzua indartuko da Bilbaoko Matiko eta Deba arteko linean, eta zerbitzu bereziko trenak ere jarriko dira Ermua eta Eibar artean. Bestalde, ekainaren 19tik 20rako eta 23tik 24rako gauetan, gaueko zerbitzu berezia Eibar eta Ermua arteko tartera mugatuko da. Ordu-tegiak aldeztu aurretik begiratzea gomendatu dute, bai APP ofizialean, bai www.euskotren.eus webgunean. Informazioa geltokietan eta 944 333 333 telefono-zenbakian ere eskuragarri dago.



Zinegoak Hedapena-ren eskutik film laburren emanaldia egingo da Andretxean

S.H. LGTBI+ eta emakume sortzaileak protagonista dituzten Zinegoak Hedapena film laburren emanaldia egingo dute martitzenean (ekainak 16), 18:00etan Andretxean. LGTBIQ+ Kolektiboaren Eskubideen Aldeko Kanpainaren baitan antolatuta duten jarduera elebiduna, irekia eta doakoa izango da.

Antolatzaileen berbetan, "Zinegoak Hedapena 2005ean sortu zen, Zinegoak toki gehiagotara zabaltzeko, eta LGTBIQ+ edukiko lanak ohiko zirkuituetatik kanpo eskura-

tzeko zailtasunak dituzten herrietara hurbiltzeko". Programak Euskal Herriko hainbat herritan erakusten ditu jaialdiko lanak, jatorrizko bertsoan, euskaraz zein gaztelaniaz azpidatzita. Eibarren hauek emanngo dituzte: *The Wind in Ash* (Kun Sun), *Ferides* (Alba Cros Pellise), *Seuls les poissons morts suivent le courant* (Christophe Gomes), *Delay* (Wang Han-Xuan), *This feminine side* (Alice Siniscalchi) eta *Ultramarino* (Maren Zubeldia, Silvina Guglielmotti).

EUSKARA

ERRITMO BIZIAN

HABEREN AZTERKETAK

prestatzeko udako ikastaroak

Udal Euskaltegiak
Dokumentuak, irakurketa, sport praktikak

Uztailean eta irailean

Aurrez aurre (B2 eta C1)

Autoikaskuntza (B1, B2 eta C1)

Eibarko Udal Euskaltegia
Portalea eraikina - Bista Eder kalea 10, 2. solairua
Telf.: 943 700912 • WhatsApp: 688 698566
E-posta: euskaltegia@eibar.eus

informazio gehiago



Gazteteen aldeko borrokak etenik ez duela adierazi dute Gazte Asanbladako kideek

S.H. Aurrez ezer jakinarazi gabe, “epailearen aginduz” hustu zuen Ertzaintzak Eibarko Gazteteria, maiatzaren 21ean, eta hori salatu zuten aurreko barixakuan, Untzagan: “Eibarko Udalak argi laga du ez duela autogestiorik nahi, ez duela herritik sortzen den antolakuntzarik nahi, ez duela kontrolatzen ez duen espaziorik onartzen. Gazteteke bat deseroso da, ez delako negozio bat”. Desalojoa egiteko modua ere gaitzetsi dute: “Maiatzaren 21ean egin zutena lotsagarria izan zen, aurreabisurik gabe, modu autori-

tarioan eta inpunitate osoz sartu ziren gaztetea. Hamabost urteetan eraikitako proiektu kolektibo bat husteko 40 minutu eman zituzten”. Gainera, lau lagun identifikatu eta horietako bati isuna ipini zioten. Asanbladako kideen berbetan, “Gazteteak herri memoria, harremanak, sare komunitarioak dira. Eta hori ezin dute eraitsi. Gazteteen aldeko borrokak ez du etenik”. 2010ean, Tallarra gaztetea hustu eta bota zutenean, beste eraikin bat lortu zuten, eta oraingoan ere hala erantzuteko asmoa dagoela diote.



Aldatzen elkarrekin ikasi zuten lagunen bazkaria

S.H. Aldatzeko ikasle-ohi hauek urtero elkartzen dira, eta aurtien Zarautzera joan dira, eskolatik irten zirela 52 urte bete direla ospatzera. Egun zoragarria pasatu zutela esan digute.

Pilates, journaling eta brunch-a uztartzen dituen jardunaldia Ixuan

S.H. Datorren ekainaren 20an, zapatua, Lya ongizate-ekitaldia hartuko du Ixua hotelak, 10:00etatik 13:00etara. Ekimenaren atzean Leire Martin eta Anne Villar, pilatesa gogoko duten bi neska gazte daude, kezka komun batekin: emakumeen osasuna. Zaletasun partekatu gisa hasi zena proiektu bihurtu da: “Gaur egun, Lya-k bi adar ditu, elkar elikatzen dutenak. Alde batetik, ikerketa bat egiten ari gara, emakumeek menopausia eta aldaketa hormonalak nola bizi dituzten ulertzeko. Eta, bestetik, aurrez aurreko esperientziak antolatzen ditugu”. Ixuakoa hiru orduko jardunaldia izango da, lau ataletan banatuta: ordubeteko pilates saioa; luzaketak eta meditazioa; hausnarketa eta journaling-a; eta brunch-a. Ekitaldia parte hartu nahi duen edonori zabalik dago. Izen-emateak 40 euro balio du eta gehienez 20 lagun onartuko dituzte. Sarrera erosi eta izena emateko lya.eus webgunean sartu behar da. Ekitaldiaren xehetasun guztiak Instragramen kontsultatu daitezke (@lya.move).





Udalbatzak eztabaidatzeko mozioa aurkeztu du Sokamuturra Ez plataformak

S.H. Hainbat talde animalistek osatutako plataformak eguazten goizean aurkeztu zuen Udalean sanjuanetarako antolatuta dauden hiru sokamuturrak bertan behera lagatzea eskatzen duen mozioa, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeen babesaz. Adierazi dutenez, bi talde horiei eta Eibarko EAJ-PNVri esker, udal gobernua ezohiko bilkura egitera derrigortu dute. Mozioan, hilaren 21, 24 eta 25erako antolatutako sokamuturrak bertan behera lagatzea, eta horien ordezkariak bestelako ekitaldiak antolatzea eskatzen dute. Esan dutenez, “EH Bildu eta Elkarrekin Podemos taldeek mozioa sinatu dute, eta EAJ-PNVren babesa ere jaso lezake, aurki egingo den Bilkuran”. Testua haratago doa, eskatzen baitu berriro ere ez antolatzeko, finantzatzeko, eta ez diruz, ez beste inola ere ez laguntzeko animaliekiko tratatu txarrak bere baitan dituen ekintzarik. Era berean, eskatzen du programazio-irizpideak Jai Batzordean adostea, parte-hartzerako bideak irekiz.

Aurtengo sanjuanetarako sokamuturra antolatzeak polemika piztu du Eibarren eta, asteburu bakarrean 600 eibartarrek baino gehiagok horren aurka sinatu dute.

Premiazko ezohiko osoko bilkura

Aurkeztutako mozioa aurki bozkatu beharko da: “Hamabi zinegotzik (EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemosekoak) eskatu dute Osoko Bilkura premiaz deitzea eta, araudiaren arabera, Udalbatzaren laurden batek (6 zinegotzik) eskaera hori egiten badute, deialdia lau eguneko epean egitera behartuta dago alkatea”. Gauzak horrela, ekimena sustatu duten elkarteek espero dute “Udal Bilkurak atzera botatzea alkatearen aldebakarreko erabakia”. Horrez gain, Udalbatzaren gehiengoak mozioa babestea eta animaliekiko tratatu txarrak gabeko jai-eredu baten alde egitea ere espero dute. Plataformatik eskerrak eman nahi dizkiete EAJ, EH Bildu eta Podemos udal-taldee, “haien laguntzagatik, eta gure mozioa udalbatzan eztabaida dadila lortzeagatik”.

Astelehenetik aurrera plasma emateko aukera eskainiko dute Eibarko Ospitalean

S.H. Ekainaren 14an, domeka, odol-emateen munduko eguna ospatzen da, borondatezko emaleei eskerrak emateko eta odola ematearen beharrraren inguruan kontzientziatzeko, gaixoen beharrak bermatu ahal izateko. Transfusio bakar batek hiru bizitza salba ditzake. Gipuzkoan, egunero 125 odol-emate behar dira ospitaleen eskariari erantzuteko. Eta biztanleen %75ek odol-emateren bat beharko du bere bizitzan zehar.

Eibarko ordezkarietatik jakinarazi dute urte amaierara arte programatutako datak hauek direla: uztailaren 9a eta 23a, abuztuaren 6a eta 27a, irailaren 10a eta 24a, urriaren 8a eta 22a, azaroaren 12a eta 26a, eta abenduaren 10a. Untzagako jubilatutako egoten dira, 16:50etik 20:50era.

Gainera, ekainaren 15etik aurrera, plasmaferesiak egingo dira Eibarko ospitalean. Adierazi dutenez, Euskadin behar den plasmaren erdia baino ez da lortzen, eta jendea animatu nahi dute: 35-40 minutuko prozesua da, eta zain onak izatea, besterik ez da behar. Informazio gehiagorako, 943 007 884 telefono zenbakira deitu edo donacion@donantesdesangre.eus helbidera mezua idatzi daiteke.



Errebal plaza, Euskal Herria eta Guatemalako eskola politiko feministentzat topagune

Guatemalako eta Euskal Herriko emakume eta kide feministek Errebalen bildu ziren formazio politiko feministan oinarritutako esperientziak partekatzeke, bost urteko ibilbide kolektibo baten emaitza den topaketa irekian, bizipenak, antolakuntza eta ikaskuntzak uztartuz.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**



Errebal plaza emakumeen eta kide feministen esperientzia politiko eta komunitarioen elkarlagune bihurtu zen zapatuan Eibarren. Entreamigos-Lagun Artean elkarteak eta Eibar-Ermua talde motorrak antolatutako Euskal Herria-Guatemala Eskola Politiko Feministen I. Topaketa bost urte baino gehiagoko lankidetzeta-prozesu baten emaitza izan da, Euskal Herriko eta Guatemalako hainbat eskola politiko feministaren arteko sare lana uztartuz. Prozesuak ikuspegi antirrazista, dekolonial eta komunitarioa izan du oinarri, eta zaintza eta bizitza erdigunean jartzea izan du helburu.

Topaketa ez zen jardunaldi akademiko bat izan, ezta formatu itxiko ekitaldi bat ere. Urteetan zehar eraikitako prozesu kolektibo baten ondorio zuzena izan da, eta kulturarteko trukea, hausnarketa politikoa eta elkarriketa horizontala egiteko espazio ireki bat sortzea izan du xede. Antolatzailleen arabera, helburua ez da ezagutza “ematea”, baizik eta esperientziak partekatzea eta elkarrekin ikastea.

Goiza, harrera eta eguneroko erritmoa apurtzen duen hasiera

Jardunaldia goizean hasi zen, Errebal plazako sarreran antolatutako gosari partekatuarekin. Fruta, zuku eta



Euskal Herria–Guatemala Eskola Politiko Feministen I. Topaketan talde argazkia. YANIRE SAGREDO

kafea ez ziren soilik harrera keinu bat izan: antolakuntzak azaldu zuenez, eguna beste erritmo batean hasteko eta parte-hartzaileen arteko lehen harremanak modu lasaian sortzeko aukera izan zen. Espazioaren hasieratik zaintza eta gertutasuna lehenetsi ziren.

Informazio guneak: erakundeen lana plazan bertan

Mahai-ingurua hasi aurretik, hainbat informazio gune jarri zituzten plazan parte hartzen duten erakundeek. Horrela, erakunde bakoitzak bere lana, ibilbidea eta jardura plazan bertan erakusteko eta partekatzeko aukera izan zuten.

Hainbat elkarte eta erakunde bertaratu ziren topaketara. Horien artean, emakume maien eta nekazarien prestakuntza lantzen duen “TIJOB’AL: JALÖJ KI KASLEMAL IXOQI” eskola politikoa egon zen. Eskola honek komunitatea eta bizimodu duina erdigunean jartzen dituen ikuspegia lantzen du, eta prestakuntza prozesuak lurraldearen defentsarekin eta antolakuntza komunitarioarekin uztartzen ditu. Eskolaren ordezkari gisa, Sololá komunitateko Neolina Pablo Salo bertaratu zen.

Guatemalako CEIBA eta Oxlaju-E erakundeek ere plazan jarri zuten beren lana eta esperientzia. Emakume maiekin batera egiten dute lan, eta beren jar-

dunaren ardatzak lurraldearen defentsa, agroekologia eta elikadura-subiranotasuna dira. Topaketan azaldu zuten, erauzketa-proiektuek eragin zuzena dute komunitateetan, bai ingurumenari dagokionez, bai gizarte antolaketari dagokionez. Testuinguru horretan, emakumeek paper aktiboa dute lurraldea defendatzeko eta bizitza komunitarioa babesteko. Haien ikuspegian, klima-krisia ez da arazo ekologiko isolatu bat, baizik eta botere-harremanek eta desberdintasun sozialek baldintzatutako fenomeno politikoa.

Lurralde defendatzaileen saretik Sabina Calel Vicente izan zen bertan, Guatemalako hegoaldeko kostaldeko lurraldearen defentsan aritzen den aktibista. Bere lanildoek emakume indigenen eskubideen defentsa eta multinazional handiek lurraldeetan duten eraginaren aurkako borroka jartzen dute erdigunean.

Mujeres Tejiendo Red kolektiboa Euskal Herrira migratutako emakume guatemalarrak osatzen dute. Haien jardunaren oinarria da emakumeen arteko laguntza-sareak sortzea eta indartzea, baita eskubide sozialen, juridikoen eta laboralen inguruko informazioa partekatzea ere. Horrez gain, ahalduntze prozesuak bultzatzen dituzte, emakumeek beren egoera hobeto ulertu eta erabakiak hartzeko gaitasun handiagoa izan dezaten. Aldi berean, kultura propioa bizirik



"Eskola hauek ez dira ikasteko leku formalak soilik; eguneroko bizitzan eta antolakuntza politikoan eragina duten espazioak dira"



Topaketek harremanak sortu eta esperientziak elkartrukatzeko aukera eman zuten. YANIRE SAGREDO

mantentzeko lan egiten dute, bereziki ehungintza tradizionalaren bidez, identitatea eta antolakuntza kolektiboa uztartuz.

Malen Etxea elkarteak emakume migratzaileen eskubideen defentsa du lan-ildo nagusi. Bereziki, etxeko eta zaintza lanetan aritzen diren emakumeen egoera jarri zuen erdigunean, askotan ikusgaitasun gutxiko eta lan-baldintza prekarioetan garatzen den errealitatea azpimarratuz. Topaketan, gai horien inguruko iritziak eta esperientziak partekatu zituzten, eta azpimarratu zuten eguneroko lan horiek nola antolatzen eta baloratzen diren gaur egungo egitura sozial eta ekonomikoetan.

Bestalde, Lagun Artean erakundeak ikuspegi kritiko, dekolonial eta feministatik garatzen du bere lana. Bere helburua da Guatemalako emakumeen errealitatea Euskal Herrian ezagutaraztea eta hortik abiatuta gizarte-eraldaketarako prozesuak sustatzea. Horretarako, kontzientzia kritikoa lantzea eta herri-tartasun globalaren ikuspegia indartzea jartzen du erdigunean, Euskal Herria eta Hegoaldeko herrien arteko harremanak ulertzeko eta eraldaketa soziale-rako espazioak sortzeko.

Mahai-ingurua: bost urteko prozesua

Mahai-ingurua borobilean jarritako aulkiekin egin zen, oholtzarik eta egitura hierarkikorik gabe. Antolaketa horrek berak markatu zuen dinamika: parte-hartzaile guztiek espazio bera partekatu zuten, eta esperientziak modu horizontalean jaso ziren.

Lehen galderak prozesuaren jatorria izan zuen ardatz: zerk eraman zituen emakumeak eskola politiko feminista hauetara.

Malen Etxeko kideek azaldu zuten migrazio testuinguruan emakume askok bizi duten ikusgaitasun falta eta lan baldintza prekarioak izan zirela antolatzeko abiapuntuetako bat. "Ez gara soilik lanaren bidez definitu behar; subjektu politikoak gara", adierazi zuten.

Mujeres Tejiendo Red sareko ordezkariak azpimarratu zuten beren ibilbidea ez dela lineala izan. Hasierako motibazio pertsonaletatik abiatuta, prozesua kolektibo bihurtu dela eta denboran zehar eraldatzen joan dela, bai egituretan bai harremanetan.



Guatemalako erakunde eta elkarteek haien jarduna azaltzen zuten postuak jarri zituzten Errebal Plazian. YANIRE SAGREDO

Talde motorraren izenean hitz egin zutenek azaldu zuten bost urteko ibilbidea etengabeko berrantolaketan dela: pertsonen etorrerak eta irteerak, erritmo desberdinak eta auto-hausnarketa prozesuak egituraren parte bihurtu direla.

Bigarren blokean, eskola politikoez utzitako ekarpenetan jarri zen arreta. Hainbat parte-hartzailek nabarmendu zuten espazio horiek aukera eman dietela beren burua subjektu politiko gisa aitortzeko, eguneroko rol sozialetatik harago.

Beste testigantza batzuek erritmoen inguruko ikaskuntza aipatu zuten: gelditzeko beharra, entzutea eta denbora kolektiboki ulertzeko modua aldatzea ezinbestekotzat jo zuten. Halaber, botere harremanen inguruko kontzientziario prozesua nabarmendu zen, eguneroko bizitzan ere nola eragiten duten ulertzeko.

Guatemalako parte-hartzaileetako batek, Sololá komunitateko emakume maia batek, eskerrak eman zituen Euskal Herrian jasotako harreragatik, eta bere konpromisoa azaldu zuen ikasitakoa bere komunitatera eramateko eta beste emakumeekin partekatzeko.

“Batuetan gelditu beharra ere badago, gorputzak eta erritmoek atsedeen eskatzen dutelako”

Ondorio nagusia: jarraipenaren beharra

Mahai-ingurua ixtean, parte-hartzaileek ez zuten ondorio bakar edo itxi bat adostu. Aitzitik, argi utzi zuten topaketa hau ez dela amaiera, baizik eta urteetan eraikiduen prozesu zabalago baten beste une bat. Eskola politiko feministek ez dute soilik ezagutza transmititzen; antolakuntza kolektiboa indartzeko, esperientziak partekatzeko eta harremanak ehuntzeko espazio gisa ulertzen dira.


Parte-hartzaileen arabera, garrantzitsuena ez da ondorio zehatz bat ateratzea, baizik eta prozesuari jarraipena ematea: "Denboran zehar sortzen diren sareek, konfiantzek eta ikaskuntzek dute benetako pisua, eta horiek dira Euskal Herria eta Guatemalaren arteko lankidetzak elikatzen jarraitzen duten oinarriak".

POESIA MUSIKATUA



Maite Lorenzoren eskutik egiten den Poesia eta Musika Gaua ospatu zen zapatuan Ibarkurutzan. Ia 40 poeta aritu ziren eta, saioa biribiltzeko, Jose Miguel Laskurainek zuzentzen duen Koralito abesbatzak kantatu zuen.

URKIKO JAIAK



Primeran ospatu dituzte jaiak Urki auzokoek. Jaien amaierarekin batera zozketatu den Eibar K.E.-aren abonoa, bestetik, Toribio Etxebarriako estankotan saldutako 1218 zenbakiari egokitu zaio. Saridunak hilabeteko epea dauka jai batzordekoekin harremanetan jartzeko. Zorionak!



MINBIZIAREN AURKAKO MARTXA



Ia mila lagun elkartu zituen Minbiziaren Aurkako Martxaren bosgarren edizioak. Bildutako diru guztia Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartek paziente eta senideei doako zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko izango da.

EIBARKO UDAL DANTZA ESKOLA



Jendetza egon da Eibarko Dantza Eskolak Coliseo antzokian eskaini dituen hiru emankizunetan: irakasleek lagunduta prestatu dituzten koreografia ikusgarriak taularatuta, ederki erakutsi zuten ikasleek kurtsuan ikasitakoa.





ROSE AGUIRRE • Kazetaria eta komunikatzailea

Existitu eta eutsi

Jira-biraka nabil ohean. Begiak ireki eta eskuarekin mugikorra bilatzen dut. Ze arraroa hemen ez egotea, seguru erori egin dela. Zer ordu ote da? Ezin da oso berandu izan. Oraindik denbora izango dut, seguru. Gau zaila izan da, amesgaiztoen arteko loezina. Baina dena ondo joango da, eguna hasi besterik ez da egin. PI PI PI. Mugikorraren alarma da. Denbora amaitu da. Goizeko seiak dira eta ez dut lorik egin.

Aharrausi egiten dut eta gorputza luzatzen dut, jaikitzeo ueña dela sinestarazteko. Gorputzak ezetz dio, nekatuta dago. Buruko ahots batek beste minutu bat eskatzen du, mesedez. Bale, ondo da. Sabaira begiratzen dut. Jarriko dudak kamiseta bezain zuria da. EGIA DA! Ez dut temperatura ikusi... Atzo ikusi nuen, baina ez dut gogoratzen. Nahikoa izango al dira kamiseta eta galtza motzak? Ez dakit. Jaiki egin beharko nintzateke. Atzo berandu lokartu nintzen, testu batzuk nituen berrikusteko. Pendiente daukat. PI PI PI. Kasu hauetarako jarrita daukadan alarma da. Buruak irabazten du, eta gorputzak ez du laguntzen.

Ohetik jaikitzen naiz. Mugikorra hartzen dut. Bale, beste arropa bat aukeratu behar dut. Baina lehenbizi leihoak ireki behar ditut. Etxea egurastu beharra dago. Paisaiak pozten nau, urteetan ohituta egon naizenetik ezberdina. Komunera noa, eskuak, aurpegia eta hortzak garbitzen ditut. Sukaldera noa, jangelako mahai gainean oraindik BOE 2026- 8284 316 Errege Dekretua dago, aparteko erregularizazioa xedatzen duena. Argitaratu zenetik aztertu dut, orriek ez didate gezurrik esaten uzten. Arrazoi zuen amak zuzenbidea ikastea aholkatu zidanean, baina nerabe nintzen aldetik, ukatu egiten nuen belarrietara heltzen zitzaidan momentuan. Zer izan behar nuen nik legeak irakurtzen? Interpretatzen eta ikasten, nik? Hilik egotea nahiago. 16 urteko ni-ak barre egingo luke nire aurpegian, bederatzirte baino gutxiago ez baitut eman testu zoriontsu horien artean. PI PI. Gosaria prestatzeko alarma da. Migratzaile on gisa ez dut galdu jainkosak agintzen duen bezala gosaltzeko ohitura.

Honezkerokonturatuko zineten denetarako alarmak ditudala. Batez ere ondoko gelan nire alaba dagoelako. Txikia da, eta oraindik ez da erabat jabetzen amak bizi izan duen guztiaz. Neure burua ispiluan ikusten dut eta horren alde ikusten dut, besteengandik bereizten nauena. Azal beltzarana, marroia, ezpain handi eta lodiak, begi mardulak, ez dut bat eta hirurogeita bost baino gehiago neurtzen, begi marroiak, ile beltzarana, izurtua, laxoa edo sumindua den erabakitzen ez dena. Nire jatorria erakusten duten ezaugarriak: genozidaren eta indigenaren geneen konbinazioa. PI PI PI. Berririo piztu da alarma, distraitu egin naiz, arnasa sakon hartzen dut, berandu egingo zait-eta.

Urak irakiten duen bitartean aldatu egin naiz. Pijama tolestuta utzi dut eta kaleko arropak jantzi ditut, eta nire buruak egunerako behar adina arropa kapa ote diren pentsatzen du. Oraindik ez naiz erabat ohitzen klimara. Zerbait entzun da sukaldean. Likidua irten egin da. Primeran, lan gehiago. PI PI. Alarmak jo du berririo. Alaba esnatu behar dut.

Berriz ere urarekin jarriko dut ontzia. Alabaren gelara noa, atsedean pixka bat hartzen utzi nahi diot, baina esnatu egin behar dut, bestela berandu iritsiko da eskolara. Nire zati batek ezetz dio.

“Beren herrialdera itzul daitezela”, dioen pertsonarik ez da falta. Lehenago ere esana izango genuen, beren arbasoek gure lurra inbaditu eta arpilatu zituztenean”

Denbora gehiago behar dut, nire gorputzak badaki eguna hasi berri dela. PI PI PI. Atzeratu egin nuen iratzargailua itzali beharrean. “Ama?” Banoa, erantzuten diot.

Tira, aldatu gara. PI PI PI. Denak itzali behar nituen. Gosaria prestatzen amaitzen dut, berarentzat kinua sagarrarekin berotzen dut, baso bat esne eta jogurta, gosez gelditzen bada ere. Niretzat baso bat ur, kafea eta jogurta granolarekin. PI PI PI. Baina dagoeneko gosaltzen ari gara! Itzali egin dut.

Ordua begiratzen dut, berandu gabiltza. Irribarre egin behar dut, begiratu egiten dit eta galdetzen dit: dena ondo? Bai, noski, eta irribarrez jarraitzen dut. Gosaltzen amaitu dugu, orain komunera joan behar dugu, garbitu eta orraztu. Ilea luze dauka, oso luzea, eta goizeko ordu hauetan motza izatea nahi nuke. PI PI PI. “Ama, alarma hori zer da?” Etxetik ateratzeko ordua, maitea. Bakoitzak bere gauzak hartzen ditu, atea irekitzen dut, sentitzen dut zerbait ahazten zaidala, giltzak, nire motxila, dokumentazioa, janaria. Dena daukat, atea ixten dut. Alabak igogailua deitzen du. Barruan gaude. Ur-poteak ahaztu ditut. Itzuli egin naiz. Motxilan giltza bilatzen dut, libreta, kanpoko bateria, boligrafo bat, liburu bat, audifonoak... Non dago giltza? Motxila lurrean jartzen dut. PI PI. Mugikorra bota nahi dudala pentsatzen dut. Badakit berandu dela, berehala atera behar dugula. Giltzak aurkitu ditut.

Bizi dudan identitate hau. Ez naiz hemengoa, baina ezta hangoa ere. Guztiz nirea ez den nire identitatea. Kolektiboa da. Arropak jantzi, besarkatu eta aurrera eginarazten dit. Latinoamerikako jatorrizko herrietatik dator, baina baita Euskaditik ere.

Asko kostatu zait zer idatzi erabakitzea: beldurrezko gertaerez idatz nezakeen, baina baita itzaropenez ere. Errealitatetik egitea erabaki dut, ez baitago hori baino gauza ankerragorik.

Garondoan arnasten gaituen biolentzia. Nire herrikide gehienek zaintza/garbiketa lanetan bakarrik jardun dezakete, horietako askok ikasketa titulu bat besapean dutela. Indarkerietatik bizirik atera direnak, egunez egun indarkeria mota berriei aurre egin behar dietenak. Paperik gabeko lana, familiarik gabekoa, laguntza-sarerik gabekoa. Irratian entzuten dut migratzaileok nola etortzen garen lapurtzera, nazionalizatuari lana kentzera. Sare sozialetan sartzen naiz eta hor ere, eta batez ere hor, xenofobia eta arrazakeria bere gailurrean daude.

“Beren herrialdera itzul daitezela”, dioen pertsonarik ez da falta. Lehenago ere esana izango genuen, beren arbasoek gure lurra inbaditu eta arpilatu zituztenean. Baina ez zaitezte engaina, ezohiko erregularizazioak mesede egiten dizue. Behar gaituzte, eta gainera mesede bat egiten digutenaren ideia saltzea errealista zaigu.

Migratzea giza eskubidea da. Gaurko euskaldunek ere hala egin zuten. Auzo askotan hiztun euskaldunen hirugarren edo bigarren belaunaldia dira, Espainiako lurraldetik etorri ziren familia horiek. Horietariko batzuk dira orain “atzerritarra” diskriminatzen dutenak, agian iraganera begirada botatzea ondo etorriko litzateke. Euskalduna dena ere eraikitzen baita. Hala ere, diskurtso arrazistak erabiltzen dira bestea, azal beltzaranekoa eta familia migratukoa mehatxua bezala ikusteko. Beste horiek euskal lurraldean jaiotako neska-mutilak dira. Euskaraz hitz egiten duten eta euskaraz bizi diren haurrak.

Zeharkatzen ditugun indarkeriek ere definitzen gaituzte, genero indarkeria, indarkeria matxista, indarkeria sexuala, indarkeria politikoa, xenofobia, homofobia, indarkeria instituzionala, indarkeria bikarioa. Ez, ez dut somatzen hori bakarrik, argi dago. Baina zein zaila den bizitzea motxila haiekin kargatzen dizutenean.



IKER MOJON

Amesgaiztoa

Amesgaiztoa izan dut gaur: Untzagara jaitsi eta Coco, nire txakurra, makil batera lotuta zegoela, hainbat troglodita berari irainka, oihuka, bultzaka eta tiraka zebiltzan. Bere aurpegian beldurra eta ihes egiteko beharra, buztana hanka artean zeukan, eta dardarka zegoen. Korrika joan nintzen Coco askatzera, baina ezin nuen, kuadrilla batek bidea oztopatzen zidalako. “Ez duzu jaia izorratuko, ezta?”. Ziztu bizian esnatu naiz, eta Coco lo zegoen nire ondoan, zorionez.

Egunkarian albiste bat irakurri dut gaur: San Juan jaietan bigantxak plazara itzuliko dira, 12 urte eta gero sokamuturra berreskuratzea erabaki baitu alkatetzak. Ekainaren 21ean, 24an eta 25ean nire amesgaiztoa bigantxentzat gauzatuko da: mozkorrak, oihuak, jipoiak, irainak, bultzadak... Animalien kontrako tratatu txarrak jaietara itzultzea erabaki du udal gobernu honek; haiek, berriz, ukatzen dute horrela denik, baina zientziak eta hainbat albaitarik argi adierazten dute sokamuturraren estres egoerak eta jauziek ondorioak dituztela bigantxen osasunean. Dena gutxi batzuen aisialdiaren aitzakiapean.

Bestalde, aldebakarreko erabakia izan da, PSE izan ezik udaleko gainonentzeko alderdiek salatu baitute ez dela egon eztabaidarik. Horrek erakusten du Iraola alkateari demokrazia bost axola zaiola; areago, baliteke bere alderdiko idazkari nagusiaren agindu – edo eragin – zuzena izatea; izan ere, Eneko Andueza sozialista tauromakiaren zale amorratua eta eibartarra da. Non gelditzen da eibartarren borondatea? Eibarko Udala alderdi baten esanetara egon daiteke?

Halere, animalien ongizateak ez luke eztabaidagarria izan behar, eta gizakion kontrako edozein eraso salatzen den bezala, animalien kontrako erasoak salatu behar ditugu; guk geuk izan behar dugulako haien ahotsa. Horregatik, ekainaren 16an 19:00etan talde animalistek – ehunka eibartarren babesarekin – Untzaga Plazan deitutako manifestazioan izango naiz. Cocok bezala bigantxek nire amesgaiztoa ez bizitzea merezi dutelako. Eta zu? Zure lau hankako lagunagatik joango zinateke?

“Zientziak eta hainbat albaitarik argi adierazten dute sokamuturraren estres egoerak eta jauziek ondorioak dituztela bigantxen osasunean”

DEBABARRENEAN ZEHAR



Saio honetan, Debabarreneko udako ur-txoko eta freskatzeko guneak izan ditugu hizpide. Kostaldeko hondartzez harago, eskualdean aurki daitezkeen putzu, ur-jauzi, ibai-inguru eta txoko ezkutu batzuk ezagutarazi ditugu, uda garaian freskatzeko dauden aukerak erakutsiz.

ALBISTEAK

Aldundiak Azkarateko errepidea egonkortzeko lanak hasi ditu eta urte amaierarako amaituko direla aurreikusi du.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek aho batez onartu dute Eibarko Mendiak Bizirik taldearen ebazpen-proposamena.



Ekai 12

DANTZA.	DANTZA ERAKUS-TALDIA TAUPADA TALDEA	19:30	ANTZOKIA (ERMUA)
MUSIKA	BIKUSTIK TALDEA	20:00	CASINO (EIBAR)
BOXEO	BOXEO GAUA	22:15	ASTELENA (EIBAR)
MUSIKA	SOROTAN BELE GOGOAN	22:30	KALEGOEN PLAZA (ELGOIBAR)
TOPAK.	ESKOLARTEKO KONBO TOPAKETA	19:00	GAZTETXEA (SORALUZE)
MUSIKA	DANIEL JUAREZ SAXOFOILARIA	21:30	SAN AGUSTIN (MENDARO)
MUSIKA	DJ KOL	19:30	ONDARGAIN (DEBA)

Ekai 13

JAIK	ONGARAIKO JAIK	11:00	ONGARAI (ERMUA)
JAIK	KUADRILLEN V. FUTBOL 7 TXAPELKETA	09:00	UNBE (EIBAR)
TXAP.	XI. BREAK DANCE ETA NEW STYLE TXAPELKETA	16:00	UNTZAGA (EIBAR)
ARTEA	MARRAZKETA JAM SESSION-A	19:00	IMP (EIBAR)
KIROL	AKUATLOIA	10:00	MINTXETA (ELGOIBAR)
MUSIK.	KOSTRA: PROTOCAVER, WINTONLARGO, COLD NOIZE, PIKUTARA, DJ	21:30	GAZTETXEA (ELGOIBAR)
JAIK	URRUZUNO AUZO EGUNA	10:00	URRUZUNO etatik (ELGOIBAR)
KIROL	VII. ERRUGBI EGUNA	10:00	EZOZI ZELAIA (SORALUZE)
JAIK	ERROMERIXA EGUNA	12:00	EZOZI (SORALUZE)
JAIK	SAN ANTONIO EGUNA	11:00	SASIOLA (DEBA)
MUSIK	AUZI TALDEA	22:30	GAZTETXEA (MUTRIKU)

Ekai 14

KIROL	XC. TXIRRINDULARITZAKO SAN JUAN SARIA	09:30	UNTZAGA (EIBAR)
TXAPEL.	V. SAN JUAN TXAPELKETA 3 BANDA KO BILLARREKO FINALERDIA	17:00	CASINO ARTISTA (EIBAR)

“Pertsona guztiek dute beren sexualitatea askatasunez bizitzeko eskubidea”

NAIARA LOY • Sexu-hezitzailea eta Guztiok elkarteko kidea



Aniztasun funtzionala duten pertsonen sexualitatea oraindik ere estereotipo eta aurreiritzien bidez baldintzatuta dagoela dio Naiara Loy Guztiok elkarteko kidea. Haren esanetan, sexualitatea modu osoan bizitzeko eskubidea ez dago oraindik bermatuta, eta horrek zuzenean eragiten du autonomia afektibo-sexualean. Horregatik, funtsezkotzat jotzen ditu hezkuntza sexual inklusiboa, intimitaterako espazio duinak eta laguntza-sare egokiak, pertsona guztiek beren harremanak eta gorputza modu libre eta seguruan bizitzeko aukera izan dezaten.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Joan den martitzenean, ekainak 9, “Sexualitatea eta aniztasun funtzionala” hitzaldia eskaini zuen Naiara Loy Andretxean, ‘Guztiok’ elkartearen eskutik. Elkarre horrek pertsona guztien sexu-eskubideak eta askatasunak defendatzen ditu, bereziki LGTBI kolektiboarenak, eta ‘Gustora’ proiektuaren bidez aniztasun funtzionala edo osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonekin ere lan egiten du. Hitzaldiaren ondoren, sexualitatearen inguruan oraindik ere indarrean dauden aurreiritziez, hezkuntza eta intimitaterako eskubideaz jardun dugu Loyrekin.

Sexualitateaz hitz egitea oraindik ere tabua da zenbait testuingurutan. Zergatik da are isilagoa gaia aniztasun funtzionala duten pertsonen kasuan?

Sexualitatearen inguruan estereotipo ugari daude oraindik, eta aniztasun funtzionalaren inguruan ere mito asko daude bizirik. Bi errealitate horiek elkartzan direnean, isiltasuna areagotu egiten da. Gainera, sexualitatea sarritan ugalketarekin, genitalitatearekin edo sexu-harremanekin lotzen dugu, baina askoz ere

gehiago da. Gure identitatearekin, gorputzarekin, harremanak eraikitzeke moduarekin eta munduan egoteko dugun moduarekin lotuta dago. Pertsona guztien bizitzaren parte da, eta horrela ulertu behar da.

Gizarteak benetan aitortzen al ditu sexualitatearen subjektu gisa, ala oraindik ere nagusitzen da “babestu beharreko pertsona” ikuspegia?

Aurrerapausoak eman dira, baina oraindik ere gehiegitan nagusitzen da ikuspegi babeslea eta murriztailea. Horren adibide argia da intimitatearekin gertatzen dena. Denok behar dugu intimitatea, baina aniztasun funtzionala duten pertsonen askotan ukatu egiten zaie espazio hori. Eta intimitatea ez da sexu-harremanetarako bakarrik: norbera izateko, pentsatzeko, barre egiteko edo negar egiteko ere beharrezkoa da. Haien eguneroko bizitza oso egituratua egoten da sarritan, eta horrek ez du laguntzen autonomia garatzen.

Non daude gaur egun hutsune nagusiak?

Arlo guztietan. Hezkuntzan, familietan, zerbitzuetan eta gizartearen begiradan. Oraindik ere askotan infantilizatu egiten dira, eta gehiegizko babesaren ikuspe-





Aniztasun funtzionala duten pertsonengan baliabide eta tresna irisgarrien beharra defendatu du Loyk.

“Funtsezkoa da tresnak eskaintzea beren gorputza ezagutzeko, onartzeko eta errespetatzeko”

gitik tratatzen dira. Horregatik, funtsezkoa da tresnak eskaintzea beren gorputza ezagutzeko, onartzeko eta errespetatzeko. Garrantzitsua da ulertzea gorputza euren dela, baimena zer den ikastea eta norberaren mugak identifikatzen jakitea.

Posible al da autonomia afektibo-sexuala laguntza edo zaintza egiturak etengabe presente dauden tes-tuinguruetan?

Bai, baina horretarako laguntza egokiak behar dira. Askotan gizartea bera da pertsona horiek ezgaitzen dituen. Aniztasun funtzionala duen pertsona bati begiratzen diogunean, askotan lehenengo ikusten ditugu mugak, eta ez gaitasunak. Horrek zaildu egiten

du bere autonomia garatzea. Hezkuntza, intimitate-rako espazioak eta pertsona bakoitzaren beharretara egokitutako laguntzak ezinbestekoak dira.

Askotan pertsona hauek “asexualizatu” egiten dira. Zer ondorio ditu horrek?

Batzuetan ematen du ez dutela sexualitaterik, baina hori ez da egia. Desgaitasun larria duen pertsona batek ere bere gorputza senti dezake, plazera bizi dezake eta gustatzen zaiona edo gustatzen ez zaiona identifika dezake. Sexu-hezkuntzaren helburuak berberak dira pertsona guztientzat; aldatu behar dena horietara iristeko modua da. Horregatik da hain garrantzitsua baliabide eta tresna irisgarriak eskaintzea.

Zer da gai honen inguruan gutxitan esaten dena, baina esatea garrantzitsua litzatekeena?

Sexualitatea ez dela sexuarekin lotutako zerbait bakarrik. Nola erlazionatzen garen, nola adierazten garen edo nola aurkezten garen munduaren aurrean ere bada. Azken finean, gure bizitzaren zati bat da, eta hori ulertu ezean zaila izango da edozein pertsonaren sexualitatea modu osasuntsuan laguntzea.

Mende bateko karrera

Ehun urte bete ditu Eibarko Txirrindulari Elkarteak. Urte hauetan bizikleta gainean ibili izango balitz bezala, sasoi betean iritsi da elkarte gaur egunera arte eta mendeurrenaren ospakizunek urtebete inguru iraungo dute. Gaiaren inguruan kontatzeko asko dagoenez, Angel Lopez presidentea eta elkartearen 60 urte inguru daramatza Joxe Aranberri elkartu ditugu elkartearen egoitzan.

BIDEOA



Testua **EKHI BELAR ERRASTI**
Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Eibar eta bizikletak bikote bereizezinak dira. Joxe Aranberriren ustez. Bizikleta ekoizle esanguratsuen sehaska izan da herria, hemen jaio ziren GAC, BH eta Orbea, besteak beste, eta gure orografiak maldan gora eta behera ibiltzea eskatzen badu ere, beti ikusi izan dira bizikletak herriko kaleetan zehar. Eta zer esanik ez Arratzen gora! Txirrindularitzaren ikurretako bat da santutegia, eta handik eta herriko kaleetatik historiako karrerista onenak pasa izan dira.

Horren guztiaren ondorio eta arrazoi da Eibarko Txirrindulari Elkartearen. Ondorio, bizikleten ekoizpenak eta txirrindularitzaren zaletasunak eragin zuelako bere sorrera; eta arrazoi, ehun urte hauetan egin duen lanagatik etorri direlako talde eta txirrindulari onenak eta gogoz sustatu duelako txirrindularitzarekiko zaletasuna.

Arnak egiteari laga eta, 1926an, GAC bizikletak egiten hasi zen.



“Orduan, txirrindularitzarekiko zaletasuna sustatzeko eta lasterketa popularrak antolatzeko (Eibar-Mendaro-Eibar, Durango-Eibar...), Club Ciclista GAC sortu zuten, enpresaren publizitatea egiteko”, kontatu digu Aranberrik. “Hurrengo urtean, 1927an, Club Ciclista Eibarrés - GAC sortu zen eta beste bat zen asmoa: lasterketa popularretan ibiltzeaz gain, inguruko karreristen taldea sustatzea. Horrela hasi zuten

bidea Club Ciclista GAC taldeak, baina legeak zioen talde batek ezin zuela marka baten izena eduki. Gainera, aldi berean, BH eta Orbea bizikletak egiten hasi ziren eta, horiek kanpoan ez lagatzeko, taldeak gaur egungo izena hartu zuten: Club Ciclista Eibarrés”.

Hasiera, gerra eta loraldia

Sanjuanak atejoka ditugun honetan, aipatzekoa da jai hauen inguruan lasterketa egin izan dela aspalditik. “Aurten, San Juan Sariaren 90. edizioa jokatuko da, baina aurretik ere probak egiten ziren jaietan, beste izen batzuekin: Gran Prueba Eibarrera, Gran Premio Eibar...”, diosku Aranberrik. “Eibarko lehen txirrindularitza lasterketa 1910ean egin zen, San Juan jaien inguruan”.

Sanjuanetako lasterketa oso garrantzitsua zen. “Palmaresa ikusi besterik ez dago. Espainiako karrerista onenak agertzen dira irabazleentzen zerrendan: Luciano Montero,



Txirrindulari ezagunei eta hasiberriei, gizonetako zein emakumezko izan, lasterketetan aritzeko aukera eman die Eibarko Txirrindulari Elkarteak. EGO IBARRA/EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

Trueba...”, dio Aranberrik. Gainera, ez zen egun bakarrera mugatzen. “Hiru egunekoa ere izan zen. Egun batean San Juan Saria ospatzen zen, hurrengoan Abiadura Saria (San Andres elizatik, binaka, Agiñaspi taberna pareraino) eta hirugarrenean Eibarko Zirkuitua (herriari 25 buelta emanez)”, azaldu digu.

Eibarko Txirrindulari Elkarteak, ostera, asmo handiagoak zituen eta 1932an Gran Premio de la República lasterketa hasi zen antolatzen. “Egun bakarrekoa zen eta karrerista onenak ekartzen zituen”, Aranberriren berbetan. Hasieran egun bakarrekoa proba zen, baina 1935ean eta 1936an erronka lau egunetara luzatu zuten Eibartik Madrilera joan eta itzultzeko.

Orduan, Espainiako Gerra Zibilak eztanda egin zuen eta txirrindularitzaren jarduna gelditu egin zen. 1941ean, Eibarko Klub Deportiboak Arrateko Igoera antolatu zuen eta Eibarko Txirrindulari Elkartearekin elkarlanean San Juan Saria. Poliki-

>>> Ehun urte bete ondoren, etorkizunera begiraten dio Eibarko Txirrindulari Elkarteak

poliki lasterketak itzuli ziren gurera, “eta 50ekoa ‘Eibarko txirrindularitzaren urrezko hamarkada’ izan zen”, Aranberriren hitzetan. “1951n elkartearen 25. urteurrena bete zen eta, data ospatzeko, hurrengo urtean zerbait berezia egin nahi izan zuten. Hiru eguneko lasterketa prestatzea pentsatu zuten eta bizikleten fabriketara joan ziren diru bila. Horrela sortu zen, 1952an, Gran Premio de la Bicicleta Eibarresa delakoa”. Hiru eguneko lasterketa bost egunera pasa zen eta gero zazpira, “eta

demaseko ikuskizuna ekarri zuen”, diosku Aranberrik.

Urte batzuk geroago, 1969an, arazo ekonomikoak medio, lasterketa Vuelta al País Vascoekin batu zen eta elkarlanak 1973ra arte iraun zuen. 1987an, Eibarko Bizikleta berreskuratu zuten eta 1991n Euskal Bizikleta izena jarri zioten, Frantziako Tourrera begira izar askorentzat prestatzeko lasterketa kuttuna bihurtuz.

Beraz, egutegian Euskal Bizikleta eta Vuelta al País Vasco zeuden, “baina Eusko Jaurlaritzak ezin zuen onartu goi-mailako bi karrera egoitea, batez ere aurrekontuagatik. Orduan, 2009an, bi lasterketak batu egin ziren, gaur egun ezagutzen dugun Itzulia sortuz”, kontatu digu Lopezek. 2017an, Diario Vasco Organizaciones Deportivas-ek laga egin zuen lasterketaren antolakuntza eta Eibarko Bizikletaz arduratzen zirenek (OCETA) hartu zuten kargua. “Txirrindulari Elkarteak asko gaude OCETA-n”, diosku. “Beraz, hainbat



Angel Lopez egungo presidentea eta Joxe Aranberri presidente ohia Eibarko Txirrindulari Elkartearen egoitzan. EKHI BELAR

buelta eman ondoren, lasterketa bere sehaskara itzuli da”, Aranberriren berbetan.

Beheko mailetatik izarretara

Lasterketa horiei esker historiako txirrindularirik onenak Eibarren ikusteko aukera izan dugu, baina Eibarko Txirrindulari Elkartea ez da izarrei distira ematera mugatu, oinarrizko mailetako txirrindularitzan ere lan handia egin du-eta. Izan ere, elkartearen lasterketa kuttuna Valenciaga Oroitzarrea da, txirrindularitzaren alde lan handia egin zuen Jose Luis Valenciaga gogoratzeko 1972az geroztik egiten den lasterketa. Zaletu mailako txirrindulari onenak elkartzen ditu urtero eta “esan dezakegu gaur egun kategoria horretako karrera garrantzitsua dela estatu mailan”, Lopezen ustez.

Valenciaga Oroitzarreez gain, junior mailako San Juan eta Udaberri Sariak antolatzen dituzte, baita kadeeten Eibarko Txirrindulari Elkartea Saria ere, eta Bizikleta eta Txis-

torra Eguna ezin dira falta.

Horrez gain, emakumeen lasterketak sustatzeko, Eibarko Hiria Sari Nagusia antolatzen dute 2018az geroztik. Harrezkero, goimailako txirrindulariak etorri dira gurera (2021an Van der Breggenek, Van Vleutenek eta Longo Borghinik osatu zuten podiuma) eta bere tokia egin du egutegian. Lopezek aurreratu digu datorren urtean data aldaketa egon daitekeela.

Sasoi berrien erakusle, Valenciaga oroitzarrea eta Eibarko Hiria Sari Nagusia streaming bitartez jarraitzeko aukera izan dugu azken urteotan, baina Aranberriren iritziz ez dago lasterketak bertatik bertara jarraitzearen parekorik: “Ziklismoa usaindu egiten da”.

Ospakizunak martxan

Ehun urte beteta, Eibarko Txirrindulari Elkartea sasoi betean dago eta etorkizunera begiratzen du. “Hau ez da hemen gelditzen”, diosku presidenteak. Lehenik, oster, mendeu-

rrena ospatu behar du. Horretarako, eguaztenean ekitaldia egin zuten Coliseo antzokian eta elkartearen historiaren inguruko bideoa aurkeztu zuten. Bestalde, domeka honetan San Juan Saria jokatu da, “eta mendeurrenako oroigarri batzuk banatuko ditugu”, baina ekintzak 2027ra arte luzatuko dira.

Lopez presidenteak esan digunez, “Bizikletaren Egunean ginkana handi bat prestatuko dugu; Joseba Aranzabal arkitektoak bizikletek eta tailerrek Eibarren izan duten garrantziaren inguruko hitzaldi oso interesgarria eskainiko du, bat baino gehiago harrituko duena; Txistorra Eguna antolatuko dugu; Gabonetan, erakusketa egingo dugu Portalean; urtarrilean, txirrindulari ohi famatuek hitzaldia eskainiko dute; 2027an zehar, urteroko lasterketak antolatuko ditugu; Itzulian, zinta moztuko dugu eta oroigarria emango diogu irabazleari; eta Valenciaga oroitzarrean ospakizunak amaitutzat emango ditugu”.

ASTEROIDEIAK PROIEKTUA


Zientzia dibulgazioa euskeraz

GALAXIEN SAILKAPEN GIDA

Gaur egun biok dakigu galaxiak unibertso osoan zehar dauden egitura erraldoiak direla, baina duela mende bat astronomoak oraindik ez zeuden ziur objektu hauen benetako izaeraz. Edwin Hubble-en behaketek 1925ean berretsi zuten "nebulosa kiribilak" -garai hartan ezezagunak ziren objektuak- Esne Bidearen kanpoko galaxia urrunak zirela. Aurkikuntza honek unibertsoaren handitasunari buruzko gure ulermena erabat birmoldatu zuen.

HUBBLE-EN SEKUENTZIA

Edwin Hubble-ek galaxiak sailkatzeko eskema sortu zuen, galaxiak euren forman eta egituran oinarritutako kategoria ezberdinetan biltzen zituen.



1 irudia: 1936an Yale University Press argitaletxean Edwin Hubblek "Realm of the Nebulae" argitalpenean marraztu zuen jatorrizko diagrama. "Nebular moten sekuentzia".

Hubble-ek galaxiak bi talde nagusitan sailkatu zituen: "early-type" (goiztiarra) eta "late-type" (berantiarra). "Early-type" hitzak galaxia eliptikoei egiten die erreferentzia; "late-type" hitzak, berriz, galaxia kiribil eta irregularreri. Galaxia eliptikoak beren eliptizitatearen (eliptizitatea forma bat zein luzatuta dagoen deskribatzeko modu bat da) arabera sailkatzen dira — E0 ia esferikotik E7 oso luzetara —, eta kiribilen barruan, Hubble-ek bi azpiadar sortzen ditu: barra duten ala ez kontuan hartuta, eta "a", "b", "c" letrekin beso kiribilak zein estu biribiltzen diren deskribatuz.

Sekuentziari begiratuz, pentsa liteke galaxia berantiarrak galaxia goiztiarren eboluzioa direla. Hori ez da horrela. Hubble-ek berak "Realm of the Nebulae"-n argitu zuenez: "'Goiztiar' eta 'berantiar' terminoak sekuentzia empirikoan posizio erlatiboak izendatzeko erabiltzen dira, denborazko inplikazioak kontuan hartu gabe." Galaxia kiribilak ez dira galaxia eliptikoen eboluzioa -ezinbestekoa da hau ulertzea galaxien sailkapena eta ezaugarriak ondo ulertu ahal izateko-.

GALAXIA ELIPTIKOAK

Galaxia eliptikoak, kanpotik ikusita, egitura homogeneo eta leunak dira. Barne-dinamika izarren ausazko mugimenduen bidez ulertzen da: izarrak ez dira norabide jakin batean biraka ari, norabide guztietan mugitzen dira, barrutik presio moduko bat sortuz galaxia egonkor mantentzeko.

Galaxia eliptiko gehienek metaletan aberatsak diren izar zaharrak dituzte, adierazten duena iraganean izar-eraketa bizia eta azkarra izan zutela. Behin izar-eraketa geldituta –gasa agortu delako –, ez da izar berri eta gazteagorik sortzen, eta egungo izar-populazioa zahartzen doa. Horregatik, galaxia hauetan ez dago izar-formazio esanguratsurik.

Galaxia eliptikoak nola eratzen diren galdera irekia da astronomian. Ideia ohikoena bi galaxia kiribilen bategitetik datozela da: izarrek orbita aleatorioetan nahasten dira eta forma leuna sortzen dute.



2. irudia: Hubble Espazio Teleskopioak ateratako M87 galaxia eliptikoko argazki harrigarria, E0 gisa sailkatua. Forma ia esferiko eta leun baterakusten du, goiztiar galaxietan ohikoa.

GALAXIA KIRIBILAK

Galaxia kiribilak unibertsoaren ikuspegi ederrenetako batzuk dira: kiribil forma ikusgarria dute, beso luze eta kiribilduetan zehar izar distiratsuak, hautsa eta gasa banatzen direlarik. Gure Eguzki-sistema ere honelako galaxia batean dago: Esne Bidean, hain zuzen.

Galaxia horiek dinamika ikusgarria dute: diskoak errotazio ordenatuan dabilta, zentrotik kanporantz geroz eta motelago. Beso ikusgarriak, ordea, ez dira egitura finko eta trinkoak. Dentsitate handiagoko eremuak baizik: izarrek galaxian zehar mugitzen dira, beso kiribilak zeharkatuz, eta dentsitate handiagoko eskualde horietan denbora gehiago ematen dutenez, pilaketa bisual bat sortzen da –trafiko-ilararen moduko efektu bat–.

Galaxia kiribilak normalean izar gazte eta urdinez josita daude. Izar berriak gas hotzaren kondentsazioz sortzen dira, batez ere beso kiribiletan pilatzen denean.



3. irudia: Hubble Espazio Teleskopioak ateratako NGC 1376-ren irudi honek galaxia kiribilaren ezaugarri ezagunenak erakusten ditu, izar eta hautsa dituzten beso kiribil argiak eta nukleo distiratsuekin.

GALAXIA IRREGULARARRAK

Galaxia irregularrak dira, funtsean, beste bi mota nagusietan sailkatu ezin direnak. Simetriarik gabe, egitura kaotikoa dute: izar, gas eta hauts banaketa desorekatu eta desordenatua. Egitura irregular hau



4. irudia: Hubble Espazio Teleskopioaren NGC 1427A irudia. 600 km/s-ko abiaduran, galaxia desitxurutzen ari da eta izar asko sortzen ari dira, kumuluko gas beroarekin elkarrengaitan baitu.

galaxia barruko interakzio dinamikoengatik sortzen da, baita inguruko galaxiekin dituzten grabitazio-elkarreraginen ondorioz ere.

LABURBILDUZ

Galaxia eliptikoak, kiribilak eta irregularrak unibertsoaren aniztasunaren adibide dira. Hubble-ek duela ia mende bat proposatutako sailkapena gaur egun ere erabiltzen dugu galaxiak hobeto ulertzeko.

Amaitzeko, proposamen dibertigarri bat: Galaxy Zoo. Proiektu honetan, edonork lagun dezake galaxiak sailkatzen eta benetako ikerketa zientifikoan parte hartzen. Denbora libre pixka bat baduzu, animatu! Informazio gehiago: zoo.galaxyzoo.org

“Horrela bizi dugu futbola: bazkariak egin, festa, taldea animatu eta Eibarren izena goian jarri”

JOSEBA COMBARRO, OLAIA GALLASTEGI ETA AITOR MUNIOZGUREN • Eskozia La Brava



Denboraldia amaituta, egun hauetan Ipuruako zelaia mimo handiz atontzen ari dira, makinak daude bertan, baina ekialdeko tribunan ez dute kendu Eskozia La Bravaren kartela. Hor egon da 25 urtez eta lagunartean pasioak berdin jarraitzen du, SD Eibar animatzea euren izatea delako.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Joseba Combarro Eskozia La Bravako presidentea, Aitor Muniozguren Presidente ohia eta Olaia Gallastegi diruzaina etxean bezala mugitzen dira Ipuruako ekialdeko tribunan. Eguzkitan, “Cordobaren aurkako partidaren bezala”, Eskozia La Bravaren 25 urteak gogoratzen ditugu eta futbola bizitzeko duten moduz jardun dugu eurekin.



Zer moduzko denboraldia izan da? Nola bizi izan duzue?

JOSEBA: Oso pozik. Mailari eustea lortu diogu eta taldeak play-offean sartzeko aukerak izan ditu azken jardunaldira arte.

OLAIA: Errusiar mendia izan da. Hasi zen, abenduan taldea makal zegoen, gero gora egin du...

AITOR: Abenduan Lehen Mailan ikusten genuen geure burua, baina RFEF Lehen Mailan! Zorionez, buelta eman genion egoerari eta azken jardunaldira arte play-offean sartzeko aukerak izan ditugu.

Zapore onarekin amaitu duzue beraz?

A: Azken zaporea ez da hain ona izan, benetako aukerekin ikusi ginen-eta, baina azken denboraldietan gertatu zaiguna gertatu zaigu: azkenengo momentuan burua sartzeko gai ez izatea.

25. urtez, Eskozia La Bravak ez dio une bakarrean ere

taldea animatzeari utzi, etxean zein kanpoan. Nola moldatzen zarete partida guztietara joateko?

A: Beti dugu lagunarteko norbait kanpoko partidetara joateko prest. Eibartik ez bada, beti dago zaleren bat Eibarrek jokatzen duen tokitik gertu bizi eta ikustera joaten dena.

J: 120 peñista ditu Eskozia La Bravak eta batzuk Eibartik kanpo bizi dira: Durangon, Deban, Errioxan... Andaluzian jokatzen diren partidetan, Eskozia La Bravako kide batek, Jesus Gayosok, desplazamenduak antolatzen ditu. Igualadan (Katalunia) ere badugu jendea... Ia-ia penintsula osoan zehar ditugu delegazioak eta gure pankarta ia partida guztietan ikusten da. Horrela bizi dugu futbola: bazkariak egin, festa,



Ipuruako ekialdeko harmaila kolorez eta animo oihuez betetzen ditu Eskozia La Bravak.

taldea animatu eta Eibarren izena goian jarri.

A: Bitxia da nola bazkidetzen den kanpoko jende hori. Kanpora joaten garenean, lagun gutxi joaten gara normalean eta beti ikusten dugu norbait Eibarko kamisetarekin, baina eibartarra ez dena edo ez duguna ezagutzen. Beraz, berarengana joaten gara, nongoa den galdetzen diogu, zergatik den eibartzale... eta pare bat garagardotara gonbidatuta, kide egiten da.

Gizonezkoen zein emakumezkoen ligak amaituta, nola pasatzen dituzue hurrengo denboraldia hasi arteko hilabete hauek?

A: Aurten gure 25. urteurrenaren ospakizuna dugu tartean.

J: Uztailaren 11n ospatuko dugu. Zale asko etorriko da penintsula osotik eta espero dugu oso ospakizun polita izatea. Gogotsu gaude. Behintzat, liga amaitzeak ospakizunak hobeto prestatzen lagundu digu.

A: Denboraldi normal batean, azkenengo partidaren, "oporrak behingoz!", esaten dugu. Futbolarekin ase-tuta amaitzen dugu, amaitzeko gogoz.

O: Baina berehala begiraten dugu aurrendenboraldiko partidak noiz jokatzaren diren.

J: Uztailaren 11n ospakizuna dugu, baina hurrengo astean, 18an, Eibarrek Alavesen aurka jokatu du Laguardian eta upategian erreserba egiteko berbetan ari gara dagoeneko.

Nolako ospakizuna egingo duzue uztailaren 11n?

J: Bete-betea izango da. Barixakuan, uztailak 10, 80 afizionatu etorriko dira kanpotik eta eurekin elkartuko gara. Zapatuan, 11:00etatik domekako 05:00etara arte jai-giroa egongo da, ia 24 orduko festa. Udalak materialarekin lagundu digu, baita tabernek ere kontzertuen finantzaketan eta bazkariarekin... Futbola ere ez da faltako eta Eibarren mito batzuk berriz jokatzaren ikusi ahal izango ditugu.

Penintsula osoan zehar dituzue kideak eta beste lagunarte batzuekin ere oso harreman ona duzue. Normalean horrela izaten da?

O: Batzuekin harreman gehiago dugu, beste batzuekin gutxiago, baina hemen inguruan, adibidez, Mirandeseoekin oso harreman estua dugu.

J: Poliki-poliki egin ditugu lagunak. Bigarren B Mailan Mirandesen aurka jokatu genuen, Eibarren antzeko talde bat oso afizio onarekin, eta tabernetan eurekin



25 urte hauetan une gogoangarriak bizi izan ditu Eskozia La Brava etetik kanpo eta 25. urteurrenerako logo berria diseinatu du.



egin genuen bat. Burgosekoekin ere oso ondo moldatzen gara eta baita Levante, Villarreal, Celta, Coruñaiko Deportivo, Rayo Vallecano, Sevilla eta Oviédokoekin ere, besteak beste.

A: Hona etortzen direnean eta herrian dagoen giroa ikusten dutenean, kanpoko jendea oso ondo hartzen duen herria dela ikustean, txantxak egiten... Flipatuta gelditzen dira. Asko mugitu gara beste toki batzuetan eta oso toki gutxitan bizi da futbola Eibarren bizi den bezala. Agian herri txikia garelako da, baina Untzaga jendez gainezka ikusten dute eta ez dugu arazorik izaten kanpotik datozen zaleekin, kontrakoa, beti egiten zaie harrera ona, eta normalean hori ez da beste toki batzuetan gertatzen.

Munduko Txapelketa hasi berri da. Eskoziaren alde egingo duzue, ala?

A: Beno, gure izenaren jatorriak ez du futbolarekin zerikusia, errugbiarekin baizik, bertako giroarekin eta abar. Baina bai, bai. Pena Cabo Verdek Bebe deitu ez izana.

25 urte hauetan denetik ikusi izan duzue: hasieran taldea 2. Mailan zegoen, 2. B Mailara jaitsi zen, be-

rriz igo, jaitsi, Lehen Mailara jauzia egin zuen, hainbat urte egon zen bertan, 2. Mailara jaitsi zen berri... Nola eutsi diezu hasierako pasio eta esentzia horri?

J: Ni 2000. urtean sartu nintzen taldean, oraindik ofiziala ere ez zenean, eta 22 lagun inguru geunden. Poliki-poliki futbola aldatu egin da, baina gure esentziari eutsi diogu eta kide berriei hori igorri diegu.

A: Gure gakoa errespetua da. Kanpotik etortzen diren zaletu batzuk inbaditzaileak izaten dira (Zaragozakoak, Xixonekoak...). Gehiago direnez, tokia eurena dela pentsatzen dute. Gure kasuan, kontrakoa da. Kanpora goazenean bertako giroan txertatzen gara, bertako lagunak egiten ditugu, hango denborak eta ohiturak errespetatzen ditugu, eta errespetu horrek balio digu Lehen Mailan Sevillara joateko eta arazorik ez edukitzeko, eta baita Harora joateko ere, Kopako partida ikustera, lehiaketatik kanpo gelditzeko prest. Futbola da eta lagunarteak duen gauzarik onena da badakigula irabazten, erraza ez dena, baina baita galtzen ere.

IRAKURTZEN JARRAITZEKO: WWW.ETAKITTO.EUS



...eta kitto! Euskara Elkarteak

Erasoak gelditzeko euskararen erabilera indartzeko garaia da

Gure herriko Udaltzaingoko sei lanpostu betetzeko deialdian ezarritako C1 euskara-mailaren eskakizuna baliogabetu du Gipuzkoako administrazioarekiko auzien epaitegi batek. Epaiazen arabera, ez dago behar bezala justifikatuta lanpostu guztietan hizkuntza-maila hori derrigorrez eskatzea, eta eskakizuna "neurrigabea" dela ondorioztatu du.

...eta kitto! Euskara Elkarteak kezka bizi du euskararen normalizazioa helburu duten neurrien kontra auzitegietatik behin eta berriz jasotako sententzia sorta. Azken epaiak, beste behin ere, euskararen biziberritza oztopatzea du helburu, eta herritarren hizkuntza eskubideen aurkakoa da. Herritarrekin hartu-emana ahoz ez ezik idatziz ere izaten da eta maila egokia behar da.

Zerbitzu publikoek herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar dituzte eta epai hau kontrako noranzkoan doa. Herritarrokin zuzeneko harremana izango duten lanpostuetan euskararen ezagutza egokia eskatzeak herritar guztion eskubide linguistikoak bermatzea ziurtatzen du. Baita udal barneko euskararen erabilera normalizatzea ere.

Norabide berean sententzia bat bestearen atzetik jasotzen ari gara, eta argi dago ez direla kasu konkretuak: euskararen kontrako eraso eta estrategia judiziala da aurrean duguna. Azken urteetan, kontsentsu zabalean oinarritutako eta euskararen biziberritza helburu duten neurrien kontrako sententziak ugaritzen ari dira auzitegietatik. Beraz, euskararen biziberritze prozesuaz harago, berdintasuna, justizia eta kohesio soziala jokoan dagoela ikusita, Eibarko Udalarari azken epaiari helegitea jartzeko eskatzen diogu. Eta bestetik, lege-araudia garatzeko eskumena duten gainerako erakundeei eskatu nahi diegu, bakoitzak bere eskumenetik, euskararen indarberritze-prozesuari lege-babes sendoa bermatzeko pausoak ematea.

Oldarraldi judizialaren baitako epaietan konstante bat da euskara bazterketarako tresna dela adieraztea. Guk, ordea, sinesten dugu euskarak gure gizartean oso bestelako trakzio indarra duela: euskara gizarte kohesiorako, berdintasunerako eta justizia sozialerako ezinbesteko osagaia da. Euskararen aurkako erasoak gelditzeko gure hizkuntzaren normalizazioan pausoak emateko eta guztiok euskararen erabilera indartzeko garaia da.

**"...eta kitto!
Euskara Elkarteak
kezka bizi du
euskararen
normalizazioa
helburu duten
neurrien kontra
auzitegietatik
behin eta
berriz jasotako
sententzia sorta"**



Ander Treviño izango da Haundiren entrenatzailea

E.B. CD Elgoibar taldeak entrena-tzaile eibartarra izango du datorren urtean: Ander Treviño. Borja Rocha Azpitarte azkoitiarrak lagatako to-
kia beteko du 41 urteko eibartarrak eta beste pauso bat emango du bere ibilbidean.

Haundi entrenatu baino lehen, Urkomendi taldean 14 urte egin ditu Treviñok eta SD Eibar-en eta Zumaia-ko ere bost urte eta erdiz egon da.



Jhon Núñezek garaipenarekin amaitu du denboraldia Zornotzan

E.B. Inda Team taldeko Jhon Núñez borrokalari eibartarrak garaipen berri bat eskuratu zuen zapatuan Zornotzako Ixerbekoa kiroldegian jokaturako K1 Slam jaialdian. Guztira 20 borroka izan ziren hitzorduan eta Núñezek urteko zazpi-garren norgehiagoka jokatu zuen.

Eibartarrak David Zubiaur (Chook Dee) izan zuen aurkari K1 modalitateko hiru asaltoko borro-

kan. Neurketa gogorra izan zen, baina epaileen aho bateko erabakiari esker garaipena Inda Teameko ordezkariek lortu zuen.

Emaitza horrekin, Jhon Núñezek amaitutzat eman du denboraldia, zazpi borroketatik bost irabazita eta bi galduta. Gainera, aurten ere Euskadiko K1 txapel-dun titulua bereganatu du -67 kiloko kategorian, bigarren urtez jarraian.



Urbat-eko alebinek eta Hiru Urak taldeak oso emaitza onak lortu zituzten asteburuan

E.B. Urgara-Txingudiren aurkako jardunaldi bikoitzean bi garaipen eskuratu zituzten Hiru Urak nesken taldeak. Lehen partidaren 6-13 nagusitu zen, defentsan sendotasuna eta erasoan eraginkortasuna uztartuz. Bigarren neurketan ere garaipena lortu zuen, oraingoan 9-7, partida estu eta parekatu batean une erabakigarrietan asmatu ostean.

Bestalde, alebin taldeak Altzan jokaturako Gipuzkoako Kopa Txapelketan parte hartu zuen. Urteko

lan onari jarraipena emanez, txapelketa bikaina osatu eta txapel-dunorde amaitu zuen, zilarrezko domina eskuratuz. Emaitza horrek denboraldi osoan zehar egindako ahalegina saritu du, ikaskuntzaz eta aurrerapausoz beteriko urteari amaiera ezin hobea emanez.

Urbat IKEk denboraldi amaierari baikortasunez eusten dio. Harrobiko taldeek erakutsitako mailak klubaren etorkizunerako oinarri sendoak dituela berretsi du.



Jose Angel eta Bittor Astigarraga eta Bittor Ugarteburu omendu zituzten zapatuan

E.B. Hiru Txirlo bola-jokoaren festa handia bizi izan zen joan den zapatuan Eibarren. Goizean, Lehendakari Saria jokatu zen Asola Berrin eta txapela etxean geratu zen, Alex Camposek bolatokia ondo ezagutzen duela erakutsi baitzuen. Gipuzkoako Txapelketako lehen 64 bolariak hartu zuten parte bertan eta ikusmira sortu zuen lehiak.

Horren ondoren, Ixuan egin zuten bazkaria eta, txapelketen sariak banatzeaz gain (baita Ostiral Gauetako

Txapelketarena ere), Jose Angel eta Bittor Astigarraga anaiek eta Bittor Ugarteburuk omenaldia jaso zuten (Jose Angelen saria iloba Arkaitzek jaso zuen). Eguraldi euritsuak ez zuten zapuztu omenaldi beroa eta hiru-txirlo festari amaiera ezin hobe eman zion.



Argazki gehiago

Zortzi borroka izango dira gaur Astelena frontoian

E.B. Sanjuanetan urtero egin ohi den bezala, boxeo jaialdia egingo da gaur, Astelena frontoian. Jaialdia 22:15ean hasiko da eta ateak 21:30 inguruan zabalduko dituzte.

Amañako Tigrea Oroigarriaren 3. edizioa jokatu da eta boxeoko bost borroka egongo dira. Amateur mailan, Xena Barbudo eta Ane Andikoetxea arituko dira nor baino nor, emakumeen arteko borroka bakarrean; eta gero, Ekaitz - Imanol Garcia, Amer Agbalou - Unai Navas eta Iker Santos - Beñar Aguirre izango dira beste borrokek.

Boxeoarekin jarraituz, neo-profesional arteko borroka izango da lehia estelarra: Ignacio Mendoza - Adrian Martin.

Horrez gain, wushu arte martziala ikusteko aukera ere egongo da hiru borrokarekin. Bertan, Eibar-ko Ronin borroka klubeko Ion Leal Alex Negreren aurka arituko da, Ttatt-eko Yago Dominguez Manu Caroren kontra eta Ronineko Gor-ka Agirregomezkorta eta L. Ramon Herrera nor baino nor arituko dira.

Jendetza Unax Garciaen omenezko txapelketan

E.B. CD Urkik bere jokalaria izan zen Unax Garcia gogoratu eta omendu zuen zapatua eta jendetza elkartu zen Unben. Infantil mailako txapelketa jokatu zen bertan eta, talde antolatzaileaz gain, SD Eibar, Eibartarrak FT, Amaiak Bat, Real Sociedad, SD Elgoibar, Lagun Onak eta Soraluze taldeak aritu ziren bertan.

Urrezko mailan Real Sociedad izan zen garaile eta Debako Amaiak Bat bigarren. Zilarrezko mailan, ostera, SD Eibar-ek irabazi zuen eta CD Urki izan zen azpitxapeldun.

Triatloilari eibartarrak bikain Gasteizen

E.B. Distantzia erdiko Gasteizko triatloia jokatu zen asteburuan. Mikel Mugika eta Pello eta Txomin Osoro aritu ziren Peñota taldearekin, taldekako garaipena lortuz.

Mugika 3. postuan helmugaratu zen 3:51:16 denborarekin, Pello Osoro 5. izan zen 3:52:26 denborarekin eta Txomin 13. heldu zen 3:59:32 denborarekin. Hau da, hiruek lau ordu baino gutxiago behar izan zuten.



Deporreko mendizaleak Burgosko mendietan

E.B. Asteburuan Burgosko Obaranes mendietan ibili ziren Eibarko Klub Deportiboko 30 mendizale. Ibilbidea Orbañanosen herrian hasi zuten eta Friasen amaitu. Bidean, “paraje ederrez” gozatu zuten, Antxon Narbaizak kontatu digunaren arabera, eta zenbait tontor gainditu zituzten. Horrela, guztira 22 kilometro baino gehiago egin zituzten sei ordu eta erditan, 1.200 metroko desnibel positiboa gaindituz.



Billar Txapelketaren finalak domekan Casinon

E.B. Eibarko billar zaleek hitzordu berezia izango dute domeka hone-tan, ekainaren 14an, V. San Juan Txapelketa jokatuko baita Casino Artista Eibarresen. Hiru bandako billarreko txapelketaren bosgarren edizioak maila handiko partidak eta giro aparta eskainiko ditu Bizikleta Plazan dagoen egoitzan.

Txapelketako jardunaldia arratsaldeko 16:00etan hasiko da finalurrekoekin. Bi ordu geroago, 18:00etan, final handia jokatu da, eta ondoren sari banaketa egingo dute parte-hartzaile eta ikusleen aurrean.

Sari hauek emango dituzte: txapelkunak txapela, garaikurra eta afaria jasoko ditu; bigarren sailkatuak, berriz, garaikurra eta afaria.



Unai Fernandez eta Aitziber Urkiola gailendu dira Galdaramiño Igoeran

E.B. Domekan, mendizale ugari elkartu zen Unbeko kirolgunean XVI. Galdaramiño Igoeran parte-hartzeko. Urtez urte Galdaramiño Antxitxika Mendi Klubak mimos antolatutako proban parte-hartzeak gora egin zuen beste behin, aurten 250 mendizale inguru apuntatu dira. “Horietatik %35 emakumeak izan ziren, eta emakumeen parte-hartzearen gorakada nabaria azpimarratu zuten bereziki Udaleko arduradunek. Sari banaketan Jon Iraola alkateak kirola eta osasuna uztartzearen

garrantziaz hitz egin zuen eta eskerrak eman zizkien boluntarioei egiten duten lanarengatik”, dioskue antolatzaileek.

Kirolarloan dagokionez, aurten-go edizioak hiru proba barne hartu zituen. Goizeko 8:00etan eguneko lehen probari hasiera eman zitzaion, mendi-martxari hain zuzen ere, 19 km eta 1000 metroko desnibel positiborekin. 9:30ean, berriz, 19 km-ko mendi lasterketari irteera eman zitzaion eta 10:00etan 10 km-koari, azken hau 500 metroko desnibel positiboarekin.



Argazkiak
eta
sailkapenak



Kirol aniztasunak haurren garapen integrala sustatzen du, besteak beste. ESKOLA KIROLA

Datorren ikasturtean kirol ezberdinetan aritzeko aukera zabalik dago

Eskola Kirolak eskaintza handituko du. Multikirolari dagokionez, aurtengoari eutsiko diote kirol berriak probatzeko aukera eskainiz, baina berritasun handiak proposatu dituzte. Jolas-Hezi, LH 1-2ko umeentzat; eta Eskola Kirol Egokitua (EKE).

E.B. Kirol aniztasunaren garrantzia azpimarratzen dute Oihane Sarasketak eta Xubane Sagastagoia Eskola Kiroleko koordinatzaileek. “LH 3tik 6ra, mutilen artean batez ere, futbola bakarrik aukeratzen dute eta kirol bakarrean ez geratzea da sustatu nahi duguna”, diosku Sarasketak. “Adin horietan oso garrantzitsua da kirol aniztasuna, kirol bakarrera mugatzen bagara mugimendu horietara bakarrik egokitzen garelako. Kirol aniztasunarekin gorputza bere osotasunean mugitzen dugu, koordinazio aldetik eta funtzio ezberdinekin. Eskola Kirolak horretarako aukera ematen du eta beste kirol batzuekin uztartu daiteke”.

Horrez gain, koordinatzaileek diotenez, aniztasunak haurren garapen integrala sustatzen du, lesioak eta gainkargak izateko arriskua murrizten du, motibazioa eta gozamen sustatzen ditu, trebetasun sozialak eta emozionalak garatzen laguntzen du eta eragin positiboa du jarduera fisikoaren atxikimendu eta konpromisoan.

Zentzu horretan, eta aurtengo balorazioa egin ondoren, datorren ikasturtean “kirol batzuk aldatu eta berriak gehitu” nahi dituzte Multikirola programan. Parte-hartzaileek 15 kirol inguru praktikatzeko aukera izango dute eta horren garrantzia azpimarratzen du Sarasketak:

“Eskoletara joaten garenean, umeei esaten diegu euren bizitzan zenbat kirol-mota probatu dituzten pentsatzeko eta ikusten dute ziur aski ez direla 15era iristen. Agian batzuen oso argi dute euren kirola eskubaloia dela, baina agian eskalada probatzen dute eta gauza biak egin nahi dituztela konturatzen dira”.

Aurten bezala, astean zehar ordubeteko bi saio egingo dituzte eta zapatu goizetan kirol desberdinen topaketak.

Bi programa berri

Aurtengo nobedadeak Jolas-Hezi eta EKE programak dira. “LH 1 eta 2koei aukera ere eman nahi genien eta hortik sortu da Jolas-Hezi”, diosku Sagastagoiak. “Multikirolaren antzeko programa izango da, baina jolasen bitartez kirolen hastapenetara joango dira”. Horretarako, astean ordubeteko saio bat egingo dute.

Programa horrek joko-jolas ezberdinak ezagutzeko, haurren garapen integrala bermatzeko, espezializazioa ekiditeko, bizimodu aktiboa sustatzeko eta lagunartean kirola euskaraz gozatzeko balio izango du.

EKE, bestalde, aniztasun funtzionala duten haurrei bideratutako programa da, LH 1etik LH 6ra. “Astean zehar bi saio egingo ditugu, ordubetekoak, bata Orbea kiroldegiko igerilekuan eta bestea Astelena frontoian”, kontatu digu Sagastagoiak.

Izen-ematea eta kuotak

Dagoeneko zabalik dago programa hauetan izena emateko epea. Jolas-Hezi programan parte hartzeko ordaindu beharreko kuota 30 eurokoa izango da, eta beste bietan 60 eurokoa. Dena dela, 2025/26 ikasturtean eskolako beka jaso dutenek (garraio, material edota jantokiko beka) ez dute ezer ordaindu beharko.

Informazio gehiago jasotzeko: www.eibareskolakirola.eus.



'Breaking Eibar' dantza urbanoen lehiaketa zapatuan

S.H. Untzaga plaza dantza urbanoen topagune bilakatu da bihar (zapatua, ekainak 13) *Breaking Eibar* ekimenaren hamaikagarren edizioarekin. Ekitaldiak estatuko zein nazioarteko breaking dantzariak bilduko ditu. Kanporaketa errondak 16:00etan hasiko dira. Hip hop, break beats eta zuzeneko musikaz lagunduta, parte-hartzaileek euren sormena, teknika eta inprobisazio gaitasuna erakutsiko dituzte, 2vs2 (bikote) formatuan. Edizio honetan, irabazleek inoizko saririk handiena jasoko dute: 1.600 euro guztira. Horrez gain, *Octogon Drums Battle* formatu berezia ere egingo da, dantza-batailei ikusgarritasun berezia emango dien saioa.



Giro ederrean ospatu zituzten Mogel ikastolako olinpiadak

S.H. J.A. Mogel ikastolako komunitate osoa elkartu zen aurreko zapatuan Iturburun, Kirola Euskaraz Bizi eguna ospatzeko. Ikastetxetik diotenez, "asko izan ziren 28. edizio honetara gerturatu zirenak. Aipatzekoa da ikasle-ohi asko elkartu zirela, euren ikastolarekiko atxikimendua erakutsiz. Pozik, benetan! Bihar, zapatua, gure txikien txanda izango da. Goizez ospatuko dugu gure jai, Argitxoren laguntza".



Datorren barixakuan hasiko dira sanjuanak txosnagunean

S.H. Sei eguneko egitarau zabala prestatu du Jaixak Herrixak Herrixandako-k sanjuanetarako. Ekainaren 19tik 24ra bitartean, musika, bertsolaritza, bazkariak, tailerrak eta bestelako ekitaldiak izango dira txosnagunean, adin eta gustu askotarako proposamenekin.

Egitaraua ekainaren 19an hasiko da, *Tekno Gaba* egunarekin. Txosnak zabaldu ondoren, GLLS, Jon Malax, Apyretal eta Ravincharen emanaldiak izango dira gauean. Hurrengo egunean, *Etxera Eguna* ospatuko dute. Besteak beste, Marasmia talde feministak antolatutako eta Berakatz taldeak girotutako marianitada, Biziminaren aldeko elkartasun bazkaria, Olaia ta Amaiurren bazkaloste akustikoa eta Ondoezik elektrotxarangak girotutako kalejira bildu dituzte egitarauan. Eta, gauean, Zerotan, Laino Beltzak eta DJ Gorriortxu ta Lastana arituko dira.

Lasaitasun eta Señora Egunak

Ekainaren 21a *Lasaitasun Eguna* izango da. Arratsaldean, *Zimurrak* izango ditugunerako bertso-saioa egingo da, eta gauean proiektzioa eskainiko dute. Ekainaren 22a, berriz, *Señora Eguna* izango da. Azoka, bazkaria eta Goi-Argi elkartearekin elkarlanean antolatutako kafe-tertulia izango dira eguneko ekitaldi nagusiak.

San Juan bezperan, ekainaren 23an ospatuko da *Gazte Eguna*. Kamiseta banaketa, herri bazkaria eta jolasak egingo dituzte egunez; eta gauean, suaren ondoren, Chuleria Joder, Sedientos de Cumbia eta DJ Berbiren kontzertuak izango dira. Egitaraua ekainaren 24an, *Umeen Egunarekin* amaituko da. Tailerrak, umeentzako bazkaria, Potx pailazoaren ikuskizuna eta drag-tailerra egingo dira Jaiak amaitzeko, Matraka elektrotxaranga eta Jon Koldo Gudariak, Skabidean eta DJ Moñikiren kontzertuak egongo dira, gauean.



Margo eta Zeramika ikasleen erakusketa Portalean ikusgai

S.H. Aurreko asteaz geroztik ikus daiteke Eibarko Zeramika eta Dibujo Udal Eskoletako ikasleen erakusketa, Portalean. 136 ikasle, horietatik 50 haur eta 18 gazte aritu dira erakusketarako lanean. Ane Ferrer eta Leire Kareaga Dibujo eskolako irakasleen berbetan, “paisaia ikasturteko programazioaren ardatz gisa hartuta, formatu desberdinetako banakako 380 lan eta mural bat erakusten dira. Kronologikoki planteatuta dago, eta paisaiari eta hiri-arkitekturari aplikatutako perspektibarekin hasten da. Teknika lehorrak erabiltzen dira, lerroa eta orbana erabiliz, batez ere arkatza, koloretako arkatzak, boligrafoak eta errotuladoreak. Ikatzak aukera eman digu herrietako eta basoetako atmosferetan, formatu handiagotetan sartzeko, eta, horrela, pastel teknikaren eskutik kolorera pasatzeko”.

Figuraziotik abstrakziora

Kurtsuaren erdialdean hasi ziren teknika hezeekin lanean, akuarelaren bidez: “Hiri-paisaiarako eroso da, oinarrizko marrazkia kontserbatu dezakegulako. Era berean, modu arinagoan, natura pintzelkada solteagoarekin, forma eta ehunduretan arakatzeko aukera ematen du. Horrek ikastaroaren azken fasean erabili diren akriliko eta olio-tekniken gauzatze-denborak menderatzea ahalbidetu digu. Amaitzeko, figuraziotik abstrakziora igaro gara, artista handien lanak behatuz”. Landa-koadernoan muestra txiki bat eta kartel-lehiaketetan eta aire zabaleko pintura-lehiaketan saritutako lanak ere ikus daitezke. Irakasleen berbetan “aipatzekoa da eskolako gazteek muralean egindako lana. Zeramika eskolarekin batera egindako instalazio baten parte da, eta aretoko kupulan dago”. Bestetik, ikasleei esker ona adierazi nahi diete, egindako lanarengatik eta erakutsitako jarraikortasunarengatik. Ekainaren 19ra arte egongo da ikusgai erakusketa, ohiko ordutegian.



Debabarreneko Orfeoia Ermuan abestuko du domekan

S.H. Debabarreneko Orfeoia hainbat kontzerturen ospatuko du bere sorreraren 10. urteurrena, domeka honetan (ekainak 14) hasita: Ermuko Santiago Apostoluaren elizan arituko dira kantuan, 13:00etan. Horrez gain, beste emanaldi bat eskainiko dute Gasteizen, ekainaren 28an: San Frantzisko elizan izango da, 13:00etan. Gainera, ospakizunaren harira, Zamorara bidaia antolatzen dihardute; urrian joango dira, bi kontzertu (Toron eta hiriburuan) eskaintzeko.



Eibarko Musika Bandaren musika nagusien egoitzetan

S.H. Iaz hasitako ekimenari jarraipena emanez, Eibarko Musika Banda San Andres eta Ego Gain egoitzetan egongo da domekan. Untzaga ingurutik irtengo dira, 11:15 aldera, San Andres zaharren egoitzan jotzeko (11:30ean). “ Sanjuanetako jai-giroko musika, bost pieza joko ditugu”, dio Andoni Vazquez zuzendariak. Handik Egogain Gerontologia Zentrora, joango dira eta, bi emanaldiak amaitu eta gero, herrian zehar kalejira egiteko asmoa daukate. Ekintza irekia izango da, eta herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte.

ERRAZA

SUDOKUA

ZAILA

5				9			7
				6			1 5
9	2			7			
	1			3			4
	3						9
7				9			6
			5			3	6
1 7			8				
6			9				2

6	5	4	9	7	3	1	8	2
1	7	3	6	8	2	5	4	9
2	2	8	5	1	4	3	7	6
7	2	5	4	9	1	8	6	3
4	3	6	8	2	5	7	9	1
8	1	9	7	3	6	2	5	4
9	6	2	1	5	7	4	3	8
3	4	7	2	6	8	9	1	5
5	8	1	3	4	9	6	2	7

5	6	1	4	3	9	8	7	2
9	8	2	1	7	6	4	5	3
3	7	4	5	8	2	9	1	6
6	3	5	2	1	8	7	9	4
1	9	8	7	4	3	6	2	5
4	2	7	6	9	5	3	8	1
8	4	6	3	5	1	2	9	7
7	1	6	9	2	4	5	3	8
2	5	3	8	6	7	1	4	9

	5	3	8		7			
	1	6			4			
				5				7
4		7						1
	9	8				6	2	
6						7		4
3				8				
			1			4	5	
		4		9	8	7		

9 DESBERDINTASUNAK



Ekainak 12 - Ekainak 18

BARIXAKUA 12

POESIA

18:30 "Poesia... eres tu" taldearen errezitaldia. Untzaga gizarte zentroa.

ZINE-FORUMA

18:30 Zine-forum feminista: "Brokeback Mountain" filmaren emanaldia eta solasaldia. Pagatxa emakume elkartearen eskutik. Sarreara librea eta doan. Portalea (areto nagusia).

DANTZA

19:30 Dantzari Eguna. Eibarko Klub Deportiboak eta Kezka Dantza Taldeak antolatuta. Untzaga.

DANTZA

20:00 KOA Dantzaren ikuskizuna. 3 euro. Coliseo.

MUSIKA

20:00 Bikustik-en kontzertua. Kasino taberna.

BOXEOA

22:15 Boxeo Gaua, Ttatt gimnasioak antolatuta. Astelena frontoia.

MUSIKA

22:30 Musika Eskolako taldeen kontzertua. Untzaga.

ZAPATUA 13

FUTBOL 7 TXAPELKETA

09:00 Eibarko kuadrillen arteko V. Futbol 7 Txapelketa, 1960-2007 urteen artean jaiotakoentzat. Unbe.

KALEAN EHUNTZEKO EGUNA

11:00/14:00 Kalean Ehuntzeko Nazioarteko Eguna plazetan, emakumeen aurkako indarkeria ikusarazteko. Eibarko Andretxeak eta Altxoa Emakume Elkartek antolatuta. Untzaga.

BOLO PALMA TXAPELKETA

12:00 XXXVIII. Eibarko Hiria Bolo Palma Txapelketa, Eibarko Kantabriako Etxeko kideen artean. Ipuruako bolatokia.

MUSIKA

12:30 Isabel Laspiurren ikasleen piano kontzertua. 3 euro. Coliseo.

MUSIKA

23:00 LOS40 Sessions Eibar, Jesus Taltavull DJ-arekin. Untzaga.

HITZALDIA

12:00 "La salud como arma de guerra", Sanitarioak Genozidioaren aurkako kide den Alberto Villarrealen eskutik. Eibar Palestinarekin herri ekimenak antolatuta. Topaleku.

BREAKING EIBAR

16:00 Eibarko XI. Break Dance eta New Style Txapelketa. Untzaga.

JAM-SAIOA

19:00/21:00 Marrazketa Jam-saioa. Modeloa: Zuriñe Ormaetxe. Musika: Maite Arroitauregi (Mursego). Doan. Ipuruako Merkatu Plaza.

DOMEKA 14

TXIRRINDULARITZA

09:30 XC. Txirrindularitzako San Juan Sari Nagusia – Gipuzkoako txapelketa, gazte kategoria. Antolatzailerak: Eibarko Txirrindulari Elkartea. Irteera eta helmuga: Toribio Etxebarria kalea.

MUSIKA

11:15 Eibarko Musika Bandaren kalejira, Untzaga inguruan. **11:30** Emanaldia,

San Andres zaharren egotzan. Jarraian, beste emanaldi bat eskainiko dute, Egogain Gerontologia Zentroan, eta handik kalejiran joango dira, Untzagara.

DANTZA

12:30 Estidantza ikuskizunaren emanaldia. 3 euro. Coliseo.

BILLARRA

16:00 V. San Juan Txapelketa (3 bandako billarra), finalaurrekoak. **18:00** Finala. Casino Artista Eibarres klubak antolatuta. Edukiera mugatua, aretoa bete arte. Casimon (Eibarko Bizikleta Plaza).

MARTITZENA 16

BIDEO-FORUMA

17:00/18:30 Emakumeen Istoriok bideo-forum saioa: Natividad Zaro. Pagatxa emakume elkartearen eskutik. Sarrera librea eta doan. Andretxea.

FILM LABURRAK

18:00 Zinegoak 2026: film laburren saioa. LGTBQ+ Kolektiboaren Eskubideen Aldeko Kanpainaren barruan. Jarduera elebiduna, irekia eta doakoa. Andretxea.

HERRITU

18:30/19:30 Gure Eskuren Herritu ekimenarekin bat egiteko mahaia. Eibarko Klub Deportiboa (1. solairuko lokalean).

ELKARRETARATZEA

19:00 "Sokamuturra sanjuanetatik kanpo! No al maltrato animal". Untzaga.

EGUAZTENA 17

MUSIKA

19:00 Juan Bautista Gisasola Musika Eskolaren emanaldia. Coliseo.

DANBORRADA

19:15 Sanjuanetako danborradarako entsegua (haurrak). **20:15** Helduen entsegua. Errebal Plazia (eraikin barruko lokaletan).

EGUENA 18

MUSIKA

19:00 Juan Bautista Gisasola Musika Eskolaren emanaldia. Coliseo.

GIMNASIA ERITMIKOA

19:00 Ipurua Gimnasia Eriritmiko taldearen erakustaldia. Untzaga (eguraldi txarrekin Errebal Plazan).

KANTU-SAIOA

19:00 "Euskal kanta tradizionalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkartea.

ERAKUSKETAK

Ekainaren 10era arte

"Sexilioa: Euskal landa-eremuko LGTBQ+ komunitatearen bizi-esperientziak" argazki erakusketa. Andretxea.

Ekainaren 13ra arte

Palestinari buruzko erakusketa, Eibar Palestinarekin herri ekimenak antolatua. Topaleku.

Ekainaren 16ra arte

Eibarko Udal Zeramika eta Dibujoko Eskoletako ikasleen lanak. Portalea.

ZINEA COLISEO



"La silla"
THRILLER

2026/Espainia/76'
Zuzendaria: Ángel de la Cruz
Aktoreak: Jaime Lorente,
Christina Ochoa, Estíbaliz Veiga.
Literatura. Familia.
Bahiketak/Desagertzeak.

1 ARETOA

- **13an:** 16:30
- **14an:** 16:30

ANTZOKIA

- **13an:** 19:15, 22:30
- **14an:** 20:00
- **15ean:** 19:30



"El día de la revelación"
ZIENTZIA FIKZIOA. DRAMA

2026/AEB/145'
Zuzendaria: Steven Spielberg
Aktoreak: Emily Blunt, Josh
O'Connor, Colin Firth.
Estralurtarrak

1 ARETOA

- **13an:** 19:45, 22:30
- **14an:** 20:00
- **15ean:** 19:30



"Pioneras.
Sólo querían jugar"
DRAMA

2026/Espainia/106'
Zuzendaria: Marta Díaz de Lope
Díaz
Aktoreak: Aixa Villagran, Daniel
Ibáñez, Sofía de Iznájar.
Kirola. Futbola. Feminismoa.

2 ARETOA

- **13an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **14an:** 17:00, 20:00
- **15ean:** 19:30



"Shrek. 25 urte"
KOMEDIA. FANTASIA.

2001/AEB/87'
Zuzendaria: Andrew Adamson,
Vicky Jensen
Aktoreak: Mike Myers, Eddie
Murphy, Cameron Diaz
Ipuinak. Erdi Aroko fantasia.

ANTZOKIA

- **13an:** 17:00
- **14an:** 17:00



JOAQUIN
Uriguen Aranzabal

3. URTEURRENA
2023/06/08

Zuek biok eskainitako maitasunarekin gelditzen naiz.
Beti gogoan izango zaituztet.
- Maite zaituztet. ZUEN EMAZTIA ETA AMA -



IDOIA
Uriguen Osa

11. URTEURRENA
2015/11/08



Andres Eguidazu
Gorostidi

2026/06/06

Aitxitxa, naturarekiko
zeukazun maitasuna,
zure apaltasuna eta
bihotz ona, gurekin
geldituko dira betiko.

Mila esker, bihotzez, aitxaren
agurrean gurekin egon
zaretan guztioi.

- ETXEKOAK -



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **KEPA!**
Zapatuan, ekainak 12, zure lehenengo urtebetetzia izango da. Besarkada haundia amama Nerea eta danon partez.



Zorionak **INES!**
Martitzenian, ekainak 16, 4 urte beteko dozuz eta. Laztan haundixa famelixa guztiaren partez.



Zorionak **EKHI!**
Bixar 3 urte beteko dozuz eta. Besarkada haundi bat famelixaren partez. Izugarri maite zaitugu!



Zorionak **LOREA!**
Domekan 28 urte beteko dozuz eta. Egun ederra pasau eta patxo potolo haundi bat etxekuen partez!



Zorionak **FATTY!**
Astelenian urtiak bete zenduaz eta. Etxekuen partez.



Zorionak **MAIA!**
Ekainaren 11n 2 urte bete dozuz eta! Aitxixaren eta amamaren partez.



Zorionak **ASIER!**
Bihar 5 urte! Jarraitu zure alaitasun eta irribarrearekin. Musu erraldoia amatxo eta aitxixa-amaman partez.



Zorionak **IKER!**
Hillaren 13an 8 urte beteko dozuz! Egun zoragarria opa detsugu! Patxito bat famelixaren eta, batez be, Aneren partez!



Zorionak **MAULE!**
Ekainaren 9an urtia bete zenduan eta. Patxo potolua famelixaren eta, batez be, Martiren partez.



Zorionak **CLAUDIA!**
Ekainaren 9an 3 urtetxo bete zenduaz eta. Muxu potoloa amatxo, aitaxo eta batez ere Paultxoren partez.



Zorionak **ARAITZ!**
Ekainaren 15ian 6 urte beteko dozuz. Patxo haundi bat etxekuen partez. Maite zaitugu!



Zorionak **GAEL eta AINE!**
Gaelek 11 urte bete zittuan ekainaren 2xan eta gaur Ainek 8!. Zein aspergarria izango litzatekeen bizitza zuen algararik gabe. Pillo bat maite zaituztegu! Musu erraldoi bat, laztanak!



Zorionak **UNAX** (hillaren 10ian) eta **AITXITXA** (hillaren 11n). Musu potolo bat bixori, asko maitte zaituzten etxekuen partez.



Zorionak **JOKIN eta MIREN!** Ekainaren 8xan eta 11n zuen urtebetetziak izan dira. Zorionak nire bihotzeko azukre



Zorionak **MALEN** (8 urte 9xan) eta **JONE** (2 urte 15ian)! Jarraitu ingurukau alaitzen! Maite zaituztegu, sorginak.



Zorionak **IÑAKI!**
Aitxa, ama eta Aneren partez.



Zorionak **SUA eta KEA!** Suak 6 urte beteko dittu ekainaren 15ian eta Keak 3 urte ekainaren 14an. Musu erraldoi bana famelixa guztixaren partez. Asko maite zaituztegu.

Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan
- 3.3. Konpartitzeko

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisia saltzen da Ermuko erdigunean. Zeharkalean. 686633523.

1.2. Errentan

- Deba. Emakume nagusia pisu bila uztaila edo abuzturako. 665 72 9417.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- 22 metro koadroko trastelekua saltzen da. Kanpoaldera ematen duen leihoa du, Legarre dorrean. 626 71 98 02.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile izateko. Esperientziarekin eta tituluarekin. 602893569.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, interna bezala, orduka, gauetz. Ziurtagiri soziosanitarioa eta erreferentziak. 632292662.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. 640050714.
- Gizona eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko edo gidari lanak egiteko. Esperientziaduna. 651062393.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, edota garbiketa lanak egiteko. 614612521.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 688740201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Edozein ordu eta egunetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 643579693.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Ziurtagiri soziosanitarioa. 15:00etatik aurrera. 614087578.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile izateko. Esperientziarekin eta tituluarekin. 602893569.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko, baita asteburuetan ere. Ziurtagiri soziosanitarioa. 632624579. Karina.
- Mutil gaztea eskaintzen da edozein lan motarako. Garbiketa lanetarako, ileapaindegietan lan egiteko edota eraikuntzan lan egiteko. 632721342.

4.2. Langile bila

- Esperientzia duen eta ikasten jarraitzeko grina duen ilea-paintzailea behar da. Bidali CVa peluqueriaeider3004@gmail.com helbidera.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Euskaraz eta ingelesez C1 duen unibertitate ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko edo klase partikularrik emateko 688605585.
- Marrazketa eta pintura klaseak ematen dira, haur zein helduentzat. Goizez eta arratsaldez. 646238458.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrik ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrik ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.4. Bestelakoak

- Dokumentu pertsonalak aurkitu dira Coliseo inguruetan. Berreskuratzeko deitu hona 690311429.

...ETA KITTO!
JAIKO



...eta kitto! Euskara
Elkartearen **Rifak**
sari ederra du aurten ere.
EZ GALDU AUKERA!!



Ekainak 19, 19:00 etatik aurrera
Untzaga-Guridi inguruan izago gara.

RIFEN
SALMENTA



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizenziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontizian, Implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikari Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikari Diplomatua.
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 **Facebooken:** Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com